

IBAI IZTUETA

JESUS MARI
LASAGABASTERREKIN
HIZKETAN





Jesus Mari Lasagabaster, Claude Simon Nobel Sariduna aurkezten

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du

© Ibai Iztueta

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2012ko urria

ISBN: 978-84-939967-4-1

Lege-gordailua: SS-1204-2012

Azalaren diseinua: Mireia Coromina

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Iparraldean: 0033547640386

Banatzaileak:

BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)

Tel.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektua-laren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

aurkezpena

Jesus Mari Lasagabaster irakaslearekin bere bizitzari eta lanari buruz izandako elkarrizketen emaitzaren aurkezpena duzu datoren hau. Lehenengo harremana posta elektronikoaren bidez izan genuen, eta 2008an ginen berriketan hastekoak, Tenerifeko oporretatik itzul zedinean. Baina ez zen hitzik izan, baizik eta isiltasun arraro bat. Geroago jakingo genuen egun horietan Txuma ondoez larri batek jo zuela.

2011ko ekainaren hasierakoa da hizketaldietan lehenengoa. Antiguan bildu izan gara, Matia kalea igaro eta berehala dagoen adineko lagunentzako erresidentzia apain batean, elkarrizketatua, Lourdes Lecuona emaztea eta hirurok. Oroitu ezin diren gauzak eta ahaztu ezin direnak. Memoriak, batzuetan, abaila hartzen du; beste batzuetan, katigatua geratzen da. Lourdesek aldamenetik lagundu izan dio iraganera egindako txango hauetan.

Liburutxoa bi zatitan banatu dugu. Lehenengoan, ezagutu duen munduaren gaineko lekukotasuna ematen du Txumak. Bigarreanean, urte askotan ondutako lan intelektuala aztertzen da. Zati honetarako galderak prestatzerakoan, *Las literaturas de los vascos* lana izan dugu ezinbesteko gida. Bertatik atera dugu, halaber, amaieran eskaintzen den Lasagabasterren bibliografia hautatua.

Gero ohartzen da bat, Jesus Mari Lasagabaster, ikuspegiz zabal, defendatu behar dela uste duena defendatzeagatik milimetro bat atzera egingo ez duen gizasemea dela. Lehenengotan geratuko

zaizuna, berriz, oso pertsona neurritsuaren irudia da eta, susma liteke, galdera entzun eta hitz, zer esan eta zer ez esan ongi neurtu ondoren egiten duela.

Ibai Iztuetak, 2012ko neguan

hitzaurrea

Jesus Mari Lasagabaster Madinabeitia, “Txuma”, ezagutzen dugunok ez dugu azalpenik behar zergatik merezi duen bere bizitzako ibilbidearen lekukotasuna hurrengo belaunaldiei uztea liburutxo honen bidez. Gaurko idazle eta literatur kritikari askoren irakasle izana, aitzindari izan zen, –sortzaile ere esan dezakegu– euskal literaturaren kritika lanetan. Ibai Iztueta egileak dioen bezala, Lasagabasterrek egindako ibilbideak 70eko, 80ko eta 90eko ibilbidearen metafora gisa balio dezake: estandar bat, euskaltegiak, ikastolak, literatura moderno bat, unibertsitatean irakatsitako literatur kritika... sortu dituen garaiaren metafora. Hizkuntzaren historia osoan euskararen erabilera unibertsitate eremuan sartzen lehenak izan ziren gizon-emakume haien metafora. ”Miresgarri egiten zait zu bezalako norbait, ahalegin eta denbora askoren ondoren, hizkuntza ikasteaz gain, euskal literaturaren kritika egitea ere erabaki duzulako, eta ez hori bakarrik, egin ere, euskaraz egin duzulako, zer eta unibertsitate mailan” esaten dio une batean Ibai Iztuetak Jesus Mari Lasagabasterri.

Baina, hori baino askoz gehiago da irakurleek orrialde haue-tan aurkituko dutena: euskal nobelen arloan literatur kritikaren lehen urratsak eman zituen gizonaren izaera, nortasuna. Galderagileak deskubritu duen gizona eta ezin hobekiago defini-tzen duena: “Gero ohartzen da bat, Jesus Mari Lasagabaster,

ikuspegiz zabala, defendatu behar dela uste duena defendatzeagatik milimetro bat atzera egingo ez duen gizasemea dela. Lehenengotan geratuko zaizuna, berriz, oso pertsona neurritsuaren irudia da eta, susma liteke, galdera entzun eta hitz, zer esan eta zer ez esan ongi neurtu ondoren egiten duela”. Horrela ikusi du Ibai Iztuetak Txuma Lasagabaster, horrelakoxea baita galde-erantzunetan zehar deskubritzen den gizonaren nor-tasuna. Horrelakoxea da, izan ere, askok gertutik ezagutzeko aukera izan dugun irakasle eta adiskidea.

Esku artean duzuen ez da biografia luzea, ez da egileak Txuma Lasagabasterren bizitzaz idatzitako testua; galde-erantzunak dira, baina argi ikusten dira, nire iritziz, elkarrizketatuaren ezaugarri nagusiak. Koherentzia lehenik, bere us-teekiko zintzotasuna, nahiz horrek arazoak ekarri izan behin baino gehiagotan; Gasteizko eta Salamancako apaizgaitegieta-tik bota izana, esaterako. Ez ikasle ona ez zelako “nik beti at-erra izan ditut nota bikainak, baina eztabaidan aritzen nintzen. Josefino famatuak zeuden Salamancan, apaiztegia zuzentzen eta haiekiko nire desadostasuna errotikoa zen”. Helduaroan, ikasle kristauen mugimenduarekin zuen harremana sakondu ahala, ohartu zenean elizgizon izateko bokazioa galdu zuela, koherentziak eraman zuen elizgizon izateari utzi eta sekula-rizazioaren bidea hartzera, nahiz hori ere ez izan bide erraza.

Konpromisoa, bigarren ezaugarria. Hiru eremutan nabar-mendu den konpromisoa: hizkuntza, bere herria (edo sustraiak) eta bere elizbarrutia (bizitzako lehen partean, behintzat). Ama arabarra izanik, etxean euskaraz ikasi ez arren, gogor saiatu zen Txuma euskaraz ongi ikasten, eta, Donostiako EUTGn Euskal Filologia ikasketak jarri zirenean, ez zuen zalantzarik izan klaseak euskaraz emateko eta Madrilen eta Parisen ikasi-takoak euskal literaturari aplikatzeko. Bi lekuetan izan zituen eskaintzak han geratzeko, Madrilen lehenik, eta Parisen ondo-ren. Baina berak bere herrira, bere sustraietara itzuli nahi zuen; kanpoan ikasitakoak etxera ekarri. “Artean Euskadira, Donos-tiara, itzultzeko nire tema horrekin jarraitzen nuen, zeren eta

beti pentsatu izan bainuen neure egitekoa letretara ezik teologiara dedikatzea zela eta, azken batean, elizbarrutira sartzea”. Horrela aitortzen dio Ibai Iztuetari. Euskara, irakaskuntza eta teologia, modu batean edo bestean, bizitzako hiru konpromisoak, elizgizon izateari utzi ondoren ere Gentzako, elizbarrutiko, taldetik oso gertu egon baita.

Hirugarren ezaugarria, irakasle bokazioa, bizitza osoan zehar iraun diona. Irakasle aparta izan da Txuma, ikasleek benetan estimatzen zutena “Gogobete egin nau nire lanak, dedikazio handia eskatu izan didalako. Eta bai, atsegin dut “irakastea” eta “ikasten” dutela ikustea... nire lanetik nabarmenduko nukeena nire ikasleekin izan dudan harreman estu eta aberasgarria da”. Hortxe dago ikasleekin izan duen harremanaren gakoa, bere ikasle izateari utzi eta handik urte luzetara, gaur ere gutako askorekin duen harremanaren gakoa. Asko eta asko dira euskal idazleen eta literatura kritikarien artean Parisen ikasitako metodo berriak –Greimas, Barthes, Goldman, literaturaren soziologia, semiotika...– euskal literaturari egokituaz emandako klaseak gogoan dituztenak. Eta, batez ere, klase haietan ikusi zuten irakaslearen jarrera eta gertutasuna ahanzten ez dutenak.

Horren guztiaren ondoan, elkarrizketa luze hau irakurtzen dutenek izango dute aukera Txuma Lasagabasterren haurtzaroren berri izateko; nola oroitzen dituen urte haiek, zer gertatu zaion buruan irarrita. Antiguatarra da Txuma, eta gaur ere antiguatar sentitzen da. Jakingo dugu txikitatik izan dituela irakurzaletasuna eta musikazaletasuna, “aisialdian irakurtzea eta pianoa jotzea gustatzen zitzaidan”. Idazle gogokoenak zein dituen ere kontatuko digu. Baroja, batez ere; Baroja da, beste guztien gainetik, gehien miresten duena, bere kutuna; baita gaur ere. Baroja eta Pagola, literatura eta teologia.

Baina, zerbait nabarmentzekotan, Lourdes Lecuona bere emaztearekin izandako harremana azpimarratuko nuke. Hitzak ondo neurtzen dituen gizon “neurritsu” horren ahotan, maitasun aitorten zoragarria ikusiko dugu. Onartzen du gorriak ikusi zituela Lourdes konbentzitzeko, baina argi dago ez dela

inola ere damutu: “Ezagutzen ez nuen bizitzari buruzko ikuspegi bat ekarri zidan, bere adiskideak, munduaren ezagutza, hainbat eta hainbat toki, hizkuntza, jende berria. Eta, bestalde, bere eskuzabaltasuna, laguntza eta elkartasuna, arazoren bat izan dudan uneoro, hala lan-arloan nola familiari dagokionean. Bizitzaren aurrean agertzen duen baikortasunak ez du parerik, are gaixotzen denean ere”. Nekez imajina dezakegu “on puska kontestatario” honen bizitza, ondoan, bidelagun, Lourdes izan gabe.

Miren Azkarate

Mi trabajo en la universidad me ha permitido “comer” del castellano y “cenar” del euskera.

Desde esta posición es normal que no haya querido entender esa estéril polémica sobre qué es “literatura vasca” y quién merece el calificativo de “escritor vasco”.

Jesus M^a Lasagabaster

1. ZATIA

HAURTZAROA ETA FAMILIA

Non dira zure etxekoen sustraiak? Zure aitona-amonen akordurik baduzu?

Bai, baina nire amaren aldetiko aitona-amonak ez nituen ezagutu eta alde horretatik, ez dut oroitzapen handirik. Aitaren aldetikoak, bai. Nire aitonak, zapataria, Oñatin egiten zuen lan zapata konpontzen. Nire aita, Jesús Lasagabaster, Oñatin jaio zen, oñatiarra zen. Nire ama, Resurrección Madinabeitia, aldiz, arabarra zen, Araiakoa, eta hau da nik etxean euskaraz ez ikasi izanaren arrazoa, amak egiten ez zuelako. Oñatin denbora luzez neskame ibilita ikasitako gauzatxo batzuk baino ez zekizkien. Garai hartan ezkondu zen gure aitarekin, Arantzazun, eta Oñatin jarri ziren bizitzen. Gero, aitari, musikaria zen, Oñatiko bandako zuzendaria, Donostiara joateko aukera sortu zitzaion, banda muzipalean lan egitera. Nire aita musikari ibili zen, baina ez oso modu profesionalean, ze asmo horri eutsi izan balio gosez hilko baikin denok. Beraz, lanbidez musikari izateaz gain, damas-kinatu grabatzaile ere izan zen. Eibarren ikasitako ofizioa zuen hau. Nire ama etxeoandrea zen. Lau anai-arreba ginen etxean, bi gizon eta bi emakume.

Zein izaera zuten zure gurasoek?

Nire ama pertsona oso irekia zen, oso hiztuna; nire aita, berriz, askozaz ere itxiagoa eta gero, hezkuntzari zegokionez, askozaz zorrotzagoa; aziorik txikienagatik astintzen gintuen. Nire ama, berriz, esan bezala, oso irekia eta hiztuna zen, etxekoneko denekin oso ongi konpontzen zena.

Non bizi zineten?

Lehenengo, Alfonso XIII plazan bizi izan ginen, Antiguako elizaren parean. Gure familia Antiguaren parte zen. Beti egon izan gara Antiguako bizitzari, Antiguako jardueri loturik. Nire anaiak danborradan jotzen zuen; nire arrebek auzoko taldean egiten zuten dantza eta nik, nola seminariora oso garaiz joan nintzen, ez nuen jarduera hauetan parte hartzerik izan. Baina beti sentitu izan gara oso antiguarrak. Gero, Alfonso XIII plazatik irten, eta Matia kalera aldatu ginen, 21. zenbakira, eta orduz gero, han.

Orduan, denbora batez musikari pila bat izan zineten etxean, ezta?

Nire anaia zen musikarako gaitasun handiena zuena; bera zen, zarzuela eta bestelako jarduerak izaten zirenean, “Circulo de los Luises”en, - “pudri”an esaten genion guk, “pudridero”tik - pianoa jotzeaz arduratzen zena.

Jarduera ugari izaten ziren garai baten erretratua egin duzu.

Garai hartan Antigua herri bat bezalakoa zen. Guk “goazen Donostiara” esaten genuen zentrora gindoazenean, Antiguak, gainontzean, herri gisa funtzionatzen baitzuen. Auzoaren herri izaera defendatzen zuen jendea ere bazen; beste batzuek, aldiz, hiriburu izaera aldarrikatzen zuten. Baina, izatez, Antigua, sasoi hartan auzo bat zen... Kontxa zeharkatzea alde batetik beste batera igarotzea zen.

Nolakoa zen Antigua ume baten begietan?

Zera, ikus dezagun, nik, arrazoia erabiltzen dudanetik, edo lehenagotik, argi eta garbi daukadan gauzetako bat da gerran galtzaileen artekoa izan naizela. Hau oso datu garrantzitsua da. Nire aita ez zen ezertan sartu. Miaketak egin zizkiguten. Polizia izan genuen etxean. Ez zuten ezer aurkitu, nahiz eta bazen ikurrina zuten zapi famatu horietako bat. Orduan, gu, markatua ez zegoen familia gisa pasa ginen. Dena den, oso ongi gogoratzen ditut gerrako urteak eta gerra noiz hasi zen, bereziki, zer nolako

eragina izan zuen Antigua. Gure eraikinetik, askok alde egin behar izan zuten gerraren etorrerarekin, emigratu egin behar izan zuten. Guk, gogoratzen naiz nola etxean eztabaida izan genuen aitaren eta amaren artean. Larunbat arratsaldean zen. Nire aita alde egin behar genuela esanez, eta ama, bera ez zela mugituko esanez. Amaren iritzia nagusitu zen eta azkenean Donostian geratu ginen, eta ez zitzaigun ezer gertatu, ezer gertatzeko arrazoirik ez zegoelako ... Gero nazionalak sartu ziren, igandea zen, eta anekdota gisa gogoratzen dut, gorriek edo dena delakoek, Erret Upategiak nola prestatu zituzten ihes egiterako. Ez zien denborarik eman ordea, eta zelai guztia botilaz beteta utzi zuten. Gu bizi ginen eraikinekook eta beste etxeetakoek, hau ikustean, botila jasozen aritu ginen. Nire etxean bada orduko txanpan botila bat honezkero nola egongo den ez dakidana. “Provedores de la Casa Real” jartzen du. Ez naiz zein txanpan den akordatzen. Behin batez, errege-erreginek Erret Jauregian intelektual munduko jendea eman zioten harrera batean pasadizo hauxe kontatu nion erregeari eta esan zidan: “Gorde iezadazue ongi gauza hauek berriro gerta ez daitezen”. Eta botila oraindik etxean dago, gure aitak esan zuelako: “Hau, Agirre itzultzen denerako”.

Zure aita abertzale petoa zen, hortaz ...

Abertzalea zen, bai. “Agirre itzultzen denerako”. Hil zen Agirre, ez zen itzuli eta botila ... pena eman zigun botila irekitzeak eta oraindik ere gordetzen dugu. Arrebak dauka, baina gehiagorik ez dakit.

Bosten bat urte izango zenituen zuk gauza hauek gertatu zirenean ...

Bai, baina gerraren oso oroitzapen biziak ditut. Horregatik esan dizut gerran galtzaile izatearen sentsazioa daukadala.

Imajinatzen dut aitarengandik edota auzoko girotik jasoko zenuela galera sentsazio hori.

Etxekotik baino gehiago auzoko girotik, Antigua auzo oso abertzalea baitzen, jende oso euskalduna, eta zentzu horretan

esan liteke sentimendu orokorraren partaide ginela. Zeren eta auzoan bazen gehiengo bat abertzalea zena eta gutxiengo bat ... ez dakit nola esan ...

Lourdeseak: izandunak?

Ez, ez ... ezkerreko jendea, abertzale ez zirenak.

Anarkistak, komunistak?

Ez, hainbestera ere ez, gorriak, sozialistak ... eta tira, gerra amaitzean, gogoan ditut sartu ziren lehenengoak, erreketek bazuk, txapel gorria jantzita.

Eta itzuli al ziren alde egin zuten familiak?

Batzuk bai, beste batzuk ez. Gehiengo bai, auzora itzuli eta bertan geratu ziren. Baina itzuli ez zen jende asko ere izan zen, Bilbo aldean geratu zirenak. Izan ziren beste batzuk ere, gerrako ume famatuak, Errusiara joan zirenak. Daukadan gerra garaiko beste oroitzapen garbi bat da nola arratsaldero “Cara al sol” jotzen zuten eta nola eskua jasota jarri beharra zegoen, agur faxista harekin, egiten ari zirena utzita “Cara al sol”ak irauten zuen bitartean. Eta tira, gero, eskolan ere faxismoaren zeinua izaten zen nagusi.

Eta gerraostean nola geratu zen galtzaileen auzo hura? Nolako zen egunerokotasuna?

Nahiko antzeko jarraitu zuen. Ez zen ondorio praktikorik izan. “Pudri”an eusko aireko zarzuelak egiten ziren. Antiguak beti gorde ohi zuen nolabaiteko independentzi mota bat, garai-ko gertaeretatik pixka bat apartean balego bezala. Batzuetan Araiara joaten nintzen. Han amaren aldeko sendia geneukan eta osaba-izeba batzuek irin fabrika bat zeukaten. Askotan, ordurako Gasteizko seminarioan nintzela, Donostiara seminarioaren eguneko diru-bilketa egitera bisitan etortzen ginenean, aprobetxatzen nuen familiak etxera bidaltzeko jarririko irin pakete batzuk ateratzeko. Eta gogoratzen naiz behin batean banindoala ni irin

pakete handi batekin eta, muga edo aduana batean, guardak esan zidan: “Aizak mutikoa, zer daramak hor?”, “ba, ez dakit, senide batzuek biderako atera didaten zer bait”, “utzi ezak hor, eta orain ikusiko diagu zer den”. Baina guardiak beste jende batekin dis-traitzen zirela ikusi bezain laster, nire paketea hartu eta hanka egin nuen. Gure aita, batzuetan, irin zakuak eta maletak ekart-zera joaten zen. Denetik zegoen egin beharra, ze garai haiek ... baserritarrek zer jana bazuten, baina hirikook ez genuen batere aukerarik. Gogoan dut nola seminarioan zegoen baserritar ba-tek esaten zuen: “gosaldu eta gosia, bazkaldu eta gosia, afaldu eta gosia. Beti gosia”¹. Eta noski, batek daki nongo baserri batetatik zetorren, eta gosea ezagutzen ez, eta seminaria iristean, gosea zen gure eguneroko ogia.

Seminaria sartu aurretik, zein eskolara bidali zintuzten?

Parrokiaren menpean zegoen eskola publiko batera, nire be-launaldiko mutiko gehientsuenak bezala. Schuchard-en, Liza-rriturri lan egiten zutenen umeak izaten ziren han, fabriketako langileen umeak. Pilotan eta futboleant aritzen ginen. Hondartza-rra jaisten ginen futboleant jolastera. Gertatzen dena da zera, aus-kalo zergatik, seminaria sartu nahi nuela esaka hasi eta, orduan, sartu egin nintzela.

Zenbat urterekin erabaki zenuen seminarioan sartzea? Zer iru-ditu zitzaizen etxean?

Hamabi urterekin, artean hamahiru bete gabe. Gurean, aitari poz handirik ez zion eman seminaria joateko nire nahiak. Ama-ri, aldiz, ongi iruditzen zitzaion.

Zure aitari hain poz gutxi zergatik uste duzu eman ziola?

Aitaren erlijiotasuna amarena baino txikiagoa zelako.

Hitz egidazu pixka bat gehiago zure guraso eta anai-arrebei buruz. Adibidez, nolako harremana zeneukan zure anai-arrebe-kin? Txikitan, horietako zeinekin egiten zenuen jolas gehiago, zeinekin moldatzen zinen ongien?

Gehien nire anaiarekin egiten nuen jolas, nahiz eta errespetu handia ematen zidan.

Apaiztegiko egunerokotasuna deskribatuko didazu?

Goizeko seiak eta erdietan jaikitzen ginen. Gero, kaperara. Meditazioa. Gero, mezatarra. Gosaria. Estudioa. Klaseak. Jolas-ordua, frontoian. Bazkaria. Siesta. Estudioa. Klaseak. Arrosarioa. Afaria. Jolas-ordua eta iluntzeko bederatzietan, lotara.

Aisialdian zer egitea zenuen atsegin? Gogoratzen dituzu zure udak, non igarotzen zenituen oporraldiak?

Aisialdian irakurtzea eta pianoa jotzea gustatzen zitzaidan. Oporrak Donostian igarotzen nituen, batzuetan Araiara izeba ikustera joaten banintzen ere. Udan pilotan egiten nuen, frontoian, pianoa jo eta beste seminarista batzuekin irteten nintzen.

Apaiztegira sartzearekin familiarik aldendu beharra nola eraman zenuen? Nola izaten zenuen familiaren berri?

Banaketa eragozpenik gabe eraman nuen. Gurasoak bisitan igo ohi zitzaizkidan, nahiz eta, egia esan, ez maizegi. Alde horretatik, denbora asko ematen nuen bakardadean.

Nola erantzun zuten zure gurasoek Gasteizko eta Salamancako seminarioetatik “bota” zintuztenean?

Inondik “bota” nindutenik ez nien gurasoei sekula esan.

SEKULARIZAZIOA ETA BIKOTE BIZITZA

Zera, igandeetan hamabietako meza ematen nuen nik Antigua eta predikatu egiten nuen eta badakit nire sermoiak jarraitzaile asko izaten zituela, baita guardia zibilak ere, bai, esaten nuena kontrolatu egiten zutelako.

Zer esaten zenuen?

Zera, gizarte gaietan sartzen nintzen, denetik, eta arrastoa jarraitzen zidaten.

“Gizarte gaietan”... nola prestatzen da sermoi bat? Zertan oinarritzen zara gauza bati ala besteari buruz aritzeko? Zein gizarte gairi buruz ari zara, eman dezakegu adibideren bat?

Gauza bati ala besteari buruz aritzea unean-uneko errealitatean oinarrituz erabakitzen da. Sermoietan lantzen genituen gertatzen ziren eta bidegabeak iruditzen zitzaizkidan gauzak.

Zerk eraman zintuen sekulartzera, fedearen galerak?

Ez, sekula ez fedearen galerak. Eliza ofizialarekiko nolabaiteko kritikak ... Alegia, nik neure sekulartzea ez nion inoiz erlijio krisiarekin zerikusirik izan zezakeen ezeri leporatu. Nik fededun jarraitu nuen eta Gentza institutuaren bidez, elizbarrutiarentzako lanean. Hala, zenbaitek euren sekulartzearen errua besteri leporatu izan dion bezala, ni, zeharo bestela, Elizarekin eta Gentzaren bidez egiten nuen lanarekin identifikatu izan naiz. Baina ez nengibilen apaiz gisa egiten nuen lanarekin gustura, mugatzen zelako Antigua ematen nuen iganderoko meza hartara. Ez neukan parrokiarik. Eta meza hura garrantzia handikoa izanagatik ere, eta

nire predikuak interes handiz adituak, ez zen apaiz izaten jarraitzeko aukera justifikatzeko lain. Bestalde, nik Lourdes aspaldidantik ezagutzen nuen. Elkarrekin arituak ginen lanean JEC-ean. Elkartu egin gintuen horrek. Bera oso kritikoa zen eliza ofizialarekin. Askoz geroago arte baino ez nintzen berari beste modu batez begiratzen hasi, berak harreman finko bat argi ikusten ez bazuen ere. Krisi luze batetatik irten berria zen eta beldurra zion konpromisoari. Gorriak ikusi nituen hura konbentzitzeko. Baina oso interesatua egon.

Lourdesek: *a! Ez dakit...*

Bai, oso interesatua.

Orduan, alde batetik, oso erakargarri ere ez zitzaizun bizitzaren aukera zeneukan eta, bestetik, Lourdes zure aldamenen izanik, gozagarri zitzaizun bizitzaren aukera.

Bai. Faktore hori ere hortxe zegoen.

Nolakoa izan zen sekulartze prozesua? Ez zen erraza izango, ezta?

Ez, zaila izan zen. Une hartan sekulartzearen iturria itxita zegoen eta ez zen batere erraza. Orduko hartan bitarteko guztien bidez ahalegindu nintzen, JECen kontsiliario ibili nintzen garaietatik nituen harremanetara jo nuen, laikoan komunioan aurkitzen zen jende izendunarengana. Gogoan dut ni bezala kontsiliario izan zen kide batek, laikoan komunitatean oso ongi kokaturikoak, hartu zuela esku nire sekulartzean.

Orduan ezkondu al zinen Lourdesekin?

Ez. 1983an ezkondu ginen eta hau guztia lehenago gertatu zen.

Baina elkar lehenagotik ezagutzen zenuten, ezta?

Zera, elkar ezagutu ... ni Pariserantz nindoan trenean eta orduan, tren berean Lourdes ere bazihoan.

Lourdesek: *orduko senargaiarekin.*

Bere senargaia zenak bidaian zehar Lourdesi kasu egiteko eskatu zidan. Eta orduan, hain zuzen, Lourdesi kasu egin nion eta galdetu nion: “Nora zoaz?” eta “zertara zoaz” eta berak: “Ba, JECen bilera batetara noa”. Eta orduan nik esan nion: “Hara, JECen bilera, ba han halakorekin eta halakorekin egingo duzu topo”. Eta halaxe hasi ginen harremanetan.

Lourdeseak: *bai, zeren eta nik, JECeko bileretatik itzultzen nintzenean, hemen dagoen gizon honen bulegotik igarotzeko betebeharrara neukan eta atzerrian ikusi eta entzun nuen guztia kontatzekoa. Beste alde batetik, JECen parte hartu ahal izateko “pasaporte” moduko baten beharrean zeunden, konprometituriko hainbeste jende zegoelako. Latinoamerikarrek, adibidez, zailtasun handiak izaten zituzten euren herrialdeetatik irteteko eta horietako askok atzera berriz ez itzultzeko arriskua izaten zuten. Ni hara iristean, nire lehengo bilerara, latinoamerikarrek eserialdi bat egin zuten ea ni zein nintzen galdezka, beste interpreteak ezagunak zirelako, baina ni ez. Orduan, nik Leonardo Aragónekin egin nuen hitz, hain zuzen, gero presidente egingo zutenarekin eta geroago gure ezkontzan aitabitxia izan zenarekin. Esan nion: “Begira, nik ez dakit JECen kontu hau zer den ere, niri halakok esan dit hona etortzeko, baina esango dizut bidaian Txuma Lasagabasterrek”. “Txuma ezagutzen duzu?”, ez zidan bukatzen utzi, “ez daukazu gehiago esan beharrik”. Hainbestekoa zen Txumagan zuten konfiantza. Eta nik hamabost urtez jarraitu nuen beraiekin.*

Lourdes nire ikaslea izana zen Donostian eta gero harreman handia izan genuen JECaren bidez. Ni kontsiliario nengoen eta berak itzultzaile lana egiten zuen. Azkenean, apaiz izateari uztea erabaki nuenean, ezkondu egin ginen. Bera Ingelesaren eta Frantsesaren Didaktikako irakaslea zen EHUn eta Europar Legebiltzarreko itzultzailea eta ni Deustuko Unibertsitateko Espainiar Literatura eta Literatur Kritikako katedraduna.

Lourdeseak: *Ni akordatzen naiz Estrasburgon, Europako Kontseilurako interprete lanetan ari nintzela Txuma lore sorta batekin nola etorri zen. Txuma lore sorta batekin!*

Ni?

Lourdes: *arras zetorren pozik: “Albiste zoragarri bat eman behar dizut!”. Bageneraman denbora bat elkarrekin. “Sekulartzea jaso dut, nahi duzunean ezkonduko gara!”. Eta nik erantzun nion: “Ezkondu ni? Ezta pentsatu ere. Begira Txuma, nik ulertzen dut zuretzat papertxo hori oso garrantzitsua dela, baina niri bost axola zait”.*

Bai. Sekulartzearen papera jaso nuenean ikusi nuen lehenengo ezkontzeko aukera izan zen. Lourdesek orduan ipurdiko galanta eman zidan ezkontze kontuak aipatu ere ez egiteko esan zidanean.

Zuek ezkontuta al zaudete?

Lourdesek: *Bai. Gero, azkenean balantza argi geratu zen. Txumak esan zidan: “Zuk ez duzu ezkontzan gehiegi sinesten ... baina nik bai. Orduan, zuri axola ez baldin badizu ...”.*

Zer iruditu zitzaion zure familiari sekulartzea?

Gaizki pasa nuen nire familiakoen erantzun hain txarrarekin. Sufritu egin nuen. Salbu aitak, zahardadez kaskartuta erdirik ere harrapatzen ez zuelako, gainontzeko denek, anai-arrebek, eta, batez ere, nire arrebak egin zidaten zaputzari izenik ezin zaio eman. Eta nire familia diodanean, nire Mexikoko arreba ere badiot, eta nire ilobak, tira nire ilobak ez hainbeste, baina nire arreba bai. Ez zituzten nire sekulartzearen alderdi txarrak baizik ikusten.

Eta zein ziren alderdi txar horiek?

Bada, apaiz izateari utzi behar niola ... badakit anaiak komentatu zuela: “Eta orain esango dute nire lagunek, zera, orain ezkontzera doana zein eta apaiza, eta bestea mutilzahar”. Nire arrebak nahi zuena eta gehiago esan zuen: “Zer esango dute nire lagunek” eta Lourdesen izena zikindu zuen. Hala ere, fakultateko kideek asko lagundu zidaten.

Hura izan al zen pasa duzun trantzerik garrantzenetakoa?

Bai, dudarik gabe.

Lourdes: *Gero, beste trantze zeharo garratza EUTGn ukatu zizuten omenaldi harena da ...*

Bai. Alegia, nik Deustuko Unibertsitatea auzitara eramaneu gizarte segurantzaz zenbait urte kotizatu ez zizkidatelako eta kontua Gorenera iritsi zen. Aurretik izana zen beste epai bat Donostian arrazoia kentzen zidana, ondorio oso originalak zirela medio. Euskadiko auzitegira jo nuen. Han, irabazi. Eta jesuitek Gorenean helegitea jarri zutelarik, han ere irabazi.

Lourdesek: *Orduan, auzitara eramaneu izana ordainarazi zizuten ...*

Bai, eta egiatan egin zidan min. Patxi Altuna eta niri egitekoa zen omenaldia zen, erretiroa batera hartzera gindoazelako, baina nire omenaldia bertan behera utzi zuten, ze ... tira, esandakoa-gatik.

Badakizu erabaki haren atzean nor izan zen?

Ez dakit (*Lourdesek, baietz, buruaz*).

Lourdesek: *bere aldamenean izan den pertsona gisa esan dezakedana da nik Txuma, negarrez, bi aldiz baino ez dudala ikusi bizitzan. Bat, noski, bere anaia zendu zenean, arras normala. Eta bigarrena, EUTGn hori egin ziotenean. Zeren eta, gainera, bi egun lehenago gaztigatu baitzioten. Horrek arrastoa uzten du ... dena eman zuen EUTGgatik. Patxi Altunak ere hots egin zion, eskubideri ez zegoela esanez-eta. Dena den, omenaldi polita egin genuen gu biok, ezta?*

Bai, zeren kontu hau zela eta, zor zidaten omenaldia egin ez zidatenez, Lourdesek Portugalera joateko gonbita egin zidan. Lisboa joan eta bost egun egin genituen han.

Zein dira nabarmenduko zenituzkeen une onak?

Ba, Lourdesen ezagutza. Ezagutza aspaldidanikoa zen, JECen garaitik zetorrena. JECen bileretatik bueltan, nire bulegora sartu eta hango kontu guztiak kontatzen zizkidanean aire-korronte

freskoa bezalako zen. Ezagutzen ez nuen bizitzari buruzko ikuspegi berri bat ekarri zidan, bere adiskideak, munduaren ezagutza, hainbat eta hainbat toki, hizkuntza, jende berria. Eta, bestalde, bere eskuzabaltasuna, laguntza eta elkartasuna, arazoren bat izan dudan uneoro, hala lan-arloan nola familiari dagokionean. Bizitzaren aurrean agertzen duen baikortasunak ez du parerik, are gaixotzen denean ere.

EUSKARA

Txillardegi eta zu aspaldiko ezagunak izan zarete.

Bera zaharragoa da, izango ditu honez gero laurogei urteak beteta eta, bai, ni baino zaharragoa da. Kideak, Txillardegi eta biok euskara ia une berean hasi ginelako ikasten. Berez, Antiguan, gutxi-asko, denok ginen etxekonekoak eta ezagunak. Beraiek, hortxe, Zumalakarregi hiribideko etxetxo batean bizi ziren eta bat egin genuen euskararen eta euskal gaiaren gaineko interesean eta, denbora batez, Zumalakarregin zeukaten inprentan aritu ginen ikasten. Txillardegi, Iñaki Zumeta eta hirurok biltzen ginen han. Hila da Zumeta. Hura zebilen irakasle. Klasea ematen genuen, edo ikasten ari ginelakoa egin, behintzat eta, gero, banandu egin gintuen bizitzak, ni apaiztegira eta Txillardegi Bilbora joan zelako, batxilergoa egitera. Ez genuen topo askoz geroago arte egingo. Ni apaiz karrera egiten eta bera Bilbon ingeniari-tza ikaske- tekin, banandu egin ginen, baina Txillardegirekin beti izan dut nahiko harreman gertukoa, auzo berekoak ginelako eta, euskara eta literatura bezala, antzeko interesak genituelako.

Nolatan animatu zinen euskara ikastera?

Pixka bat, hizkuntzarekiko konpromiso pertsonalagatik. Kallean, nire lagunek, adibidez, euskaraz egiten zuten. Antiguan denak edo ia denak euskaldunak ziren. Nire aita ere bai. Baina, gure amak ez zekienez, etxean gaztelera erabiltzen genuen eta euskara pixka bat bazterturik geratzen zen.

Zuen aitak euskaraz egiten zizuen ala gaztelera beti?

Gazteleraz. Batzuetan hitzen bat edo beste esaten zuen euskaraz, etsenplu gisa. Baina etxean euskara ez genuen ezertarako ere erabiltzen.

Eta noiz uste duzu hasi zinela euskararen ikaskuntzan sakontzen?

Saturrarango apaiztegia izan nintzenean. Han gaizki ikusia zegoen euskararen estudioa. Garai hartan, frankismo minean, oso bigarren mailako gauza zen. Nolanahi ere, nire lehengusu batekin aritu nintzen ni euskara ikasten, euskaldunberria hura ere, Javier Perez de San Roman. Helduaroan ikasi zuen euskara eta nahikotxo menperatzen zuen, ze, kaperau militar ibili zelarik, euskararen munduan murgildu beharrean izan baitzen. Ni, beti ibili izan naiz besapean euskal hizkuntzaren gramatikaren bat dudala, uste dut Zabala-Aranarena eta Arrigaraiena izaten zirela.

Baina, gauza bat da gramatika, baina praktikatu ere egin beharko zenuten baten batekin hizketan, ezta?

Lehenengo gauza gramatika ikastea zen, hizkuntza nola edo hala menperatzea, gramatika. Gero, ikaskuntza urte batzuk gehiago iritsi ziren, nolabait esateko, profesionalagoak. Beste gauza batzuk probatuz. Eta, hori, seminario txikiak iraun zuen denboran. Gero, handik, Gasteiza joan nintzen. Gasteizen giroak gutxiago laguntzen zuen. Gasteizko apaiztegiaren joera ofiziala oso zen españolista. Ez zegoen euskara praktikatzeko batere aukerarik, kontuan hartzen badugu Gasteizen arabarrek euskararik ez erabiltzen zutela, ez zekitela, jakin euskararik ez erabiltzen zutela, ez jakin zekitela. Eta hemendik joandakoek, ba, ahal zen neurrian erabiltzen genuen baina eskas, interesez edo.

Orduan, Gasteizko aldian euskararen ikaskuntzak herren egin zuen ...

Bai. Baina nik nire gramatika besapean eta ordutegiz kanpo ikasten jarraitu nuen, erdi-ezkutuan.

Noiz hasi zinen euskaraz lasaiki eta konfiantzaz egiten?

Niretzat, euskararen sakontze une garrantzitsu bat Donostiako apaiztegikoa izan zen. Alegia, Lukas Dorronsoro eta Jesus Gaztañagarekin ibili nintzen garaia. Bazkalondoren bildu eta be-
raiekin praktikatzen genuen. Euskararen ezagutzaren maisu ziren eta, bazkalondoren, egunero biltzen ginen euskaraz praktikatzera.

Irakurri dut praktikatzeko “Amabost egun Urgainen” nobela erabiltzen zenutela.

Ez, “Amabost egun Urgainen”-en irakurketa Salamancan hasi zen, Patxi Altunak irakurtzen zigulako, euskarazko klaseak ematen zizkiguna bera zen-eta.

Hortaz, Salamancan ere bazen euskara talderik?

Bai. Hamar-hamabiren bat izango ginen. Ez naiz akordatzen. Gogoan dudana bakarrik da Patxi Altuna zela klaseen arduraduna. Patxi Altuna, Koldo Mitxelenaren tokian edo ordezkari gisa, azken hau baitzen, nolabait esateko, titularra. Patxi Altuna ikasle zebilen Salamancan, Filologia Klasikoko fakultatean eta, aldi berean, euskara klaseak emateaz arduratzen zen. Uste dut bertan ginen denok ginela Euskal Herrikoak. Ikusi nuen beste euskara taldeen aldean, hau zerbait ofizialagoa zen, irakasleak, hein batean, unibertsitatea ordezkatzeko baitzuen: ez zen, besterik gabe, lagun batzuk euskaraz ikastera elkartzen ginela.

Zure aitari zer iruditu zitzaion zu euskaraz ikasten aritzea?

Ez zitzaion ez gaizki ez ongi iruditu.

Euskaraz ikastera zerik eraman zintuen aipatu duzunean, “hizkuntzarekiko konpromiso pertsonala” aipatu duzu. Sakon dezakezu puntu hau?

Niri, garai hartan, iruditzen zitzaidan ezin zela hizkuntza besterik gabe albo batera utzi. Nik interesatu beharra neukan hizkuntzaz eta hortik dator nire euskararekiko konpromisoa.

Norekin edo non erabili izan duzu gehien euskara?

Klaseetan. EUTGn literatura kritika ematen hasi nintzen, Parisen ikasitako metodo berriak euskal literaturari egokituz.

Zein izan da euskaldunzaharrekin izan duzun harremana? Eroso sentitzen al zara euskaldunzaharren artean?

Bai, noski.

Zer izan zen euskara ikasteen zailena eta zer atsegina?

Zailena aditza menperatzea izan zen eta atsegina hizkuntza menperatzen ari nintzela ohartzea.

Urte asko eman dituzu Euskal Herritik kanpo, Salamancan eta, batez ere, Madrilen. Imajinatzen dut zure herritik urrun hainbeste denbora emateak zure euskararen mailan eragingo zuela. Bestalde, zein iritzi zen edota zer esaten zuten Salamanca edota Madrilen euskararen gaiari buruz? Pentsatzen dut, gaur egun bezala, ez ezagutza handia izango zela ...

Bai, ez ezagutza handia ... eta bai, praktikatzeko aukera falta nuen.

Diotenez, hizkuntzaren estandarizazio prozesua gatazkatsua izan zen. Nola bizi izan zenuen zuk?

Nik ez nuen prozesua barnetik bizi izan, baina, hori bai, ordu-rako hizkuntza batuaren ereduaren arrastoan sartu nintzen.

Hizkuntzaren berreskurapenari dagokionez, lekuko izan zara erraldioen lana burutu den bertigozko aldi batena. Oso denbora tarte laburrean estandar bat, euskaltegiak, ikastolak sortu dira, literatura moderno bat ere bai bere unibertsitateko literatur kritikarekin ... egia esan, ematen du zure bizitza ibilbideak garai honen metafora gisa balio dezakeela. Miresgarri egiten zait zu bezalako norbait, ahalegin eta denbora askoren ondoren, hizkuntza ikasteaz gain, euskal literaturaren kritika egitea ere erabaki duzulako, eta ez hori bakarrik, egin ere, euskaraz egin duzulako, zer eta unibertsitate mailan. Konturatzen zara hizkuntzaren historia osoan lehenengoak izan zinetela euskara-

ren erabilera unibertsitatearen eremuan sartzen, ezta? Nondik dator horrelako indarra? Ba al zen jarraitzen zenuten eredu edo etsenplurik? Babesturik ala bakarrik sentitzen zineten?

Egia esan behar bada, babestuta baino gehiago sentitzen ginen bakarrik. Indarra sinesmen pertsonal sakon batetik zetorkigun eta erantzukizun sentimendu batetik eta Txillardegirena izan zen, agian, jarraitu genuen eredu.

Gogoan dituzu, unibertsitatean, zein izan ziren euskaraz idatzi zenituen zure lehenengo testu zientifikoak?

Euskaraz idatziriko lehenengo testuak Saizarbitoriaren lehenengo nobelei egindako literatur kritikak izan ziren.

Euskal idazleen irakurle gisa, ba al da gogokoen duzun euskararik.

Bai, Saizarbitoriarena eta Atxagarena.

Zer deritzezu euskarari dagokionez egin diren politikei? Aldatuko al zenuke ezer? Zein dira, zure ustez, alde indartsuak, zein ahulak?

Ni ez naiz nor politikak baloratzeko. Ezkontzerakoan, Lourdesek esan zidan politikan sartzen banintzen dibortziatu egingo zela. Hala bada, nola emakumeek agintzen duten ...

Zein itxura hartzen diozu, etorkizunera begira, gaur egungo egoerari? Konpromiso beharrik ba al dago, ala egoera ezberdina da?

Egoera aldatu egin da, Jaungoikoari eskerrak.

Literatura ikasketak Madrilgo Complutensen burutu zenituen. Bada bereziki gogoratzen duzun irakasleren bat?

Espainiar Filologiako Damaso Alonso eta Hizkuntzaren Historiako Rafael Lapesa nabarmenduko nituzke, nahiz eta, guztia esan behar bada, nahiko tradizionalak izan azalpenak ematerako orduan. Atsegin nuen materia nola lantzen zuten eta, batez ere, ikasleekiko agertzen zuten ardura. Gero, izugarri txarra zen literaturako irakasle bat ere izan nuen, Entreambasaguas, izena. Irakasle txarra izateaz gainera, klasera mordo batetan egiten zuen huts urte hartan urteurrenaren ospakizun handia egokitu zelako, uztailaren 18koa-edo. Gizonak Bernabeu estadioan burutzekoa zen ekitaldi ikusgarriko antolaketa lanei eskaintzen zien denbora. Egiari zor, Damaso Alonsok, Lapesak eta, are, baita frantziar literaturako irakasle batek ere, bertan irakasle geratzeko eskatu zidaten baina une hartan ez zitzaidan interesatzen, Donostiako elizbarrutira itzultzea pentsatzen ari nintzelako.

Gogoratzen zara Complutensen ibili zinen garai hartan literatur gaietan zein ziren erreferentzia nagusiak Espainian nahiz Euskal Herrian?

Nire garaian, esan bezala, Damaso Alonso, Lapesa eta Balbín izan nituen inguruan.

Nola deskribatuko zenuke Madrilgo unibertsitate giroa?

Konpromiso handiko eta konpromiso ez hain handiko taldeak izan ziren. Baina unibertsitate giro handia. Ikasleek ikastetxe nagusietan hartzen zuten ostatu eta han kultura berezia bizi ohi zen. Aipagarria da une hartako antzerki bizitzarekiko interesa.

Zure tesia Ignacio Aldecoari buruzkoa izan zen.

Tesia 72an aurkeztu nuen, oker ez banago. Tesi tradizionala izan zen. Ignacio Aldecoa aztertu nuen, baina, kritika frantsesaren eskema erabiliz gero nolabait esango genukeen bezala, metodo estrukturalistarekin baino gehiago, metodo semiologiko batekin.

Nor izan zen zure tesi zuzendaria? Nolakoa izan zen zure tesi-gintza prozesua? Ongi pasatu zenuen?

Zuzendaria Complutenseko Palomo doktorea izan zen. Garai hartan ni Donostian nintzen, klaseak ematen. Izugarri disfrutatu nuen, alde batetik, Ignacio Aldecoa pertsona eta idazle gisa mi-resten dudalako eta, bestetik, bere emaztearekin lan egin ahal izan nuelako, beti ikerketan laguntzeko prest.

Zure tesia, nolabait esateko, taxu “tradizionalekoa” izan arren, zuk ordurako ezagutzen zenituen literatur kritikako korrante berriak, Parisen izana zinen-eta.

Bai. Esan dizudan bezala Complutensen azalpenak ematerako orduan oso tradizionalak ziren. Horretaz ohartzen naizenean, Parisera joango naiz Ecole Practique de Hautes Etudes-en ikastera. Lagun baten ardurapean zegoen parrokia batean egon nintzen, auzo *chic* batean. Baina urte bat. Maiatzaren 68ak harrapatu ninduen bertan, ikasleen manifestazioekin eta ezkerreko intelektual pila batekin egin nuen topo manifestazio horietan. Egia esan, klase askorik ez zen izan. Baina tira, Madrildik nentorrela kontuan harturik, Pariserako aldaketa iraultza intelektuala izan zen niretzat, metodo berri horiek nire klasetan eta euskal literaturaren kritikan erabiltzera eraman ninduena.

Garai hartan euskal herritar ugari izango zen Parisen, izan arrazoi akademikoengatik, izan politikoengatik ...

Baziren, bai, baina harreman txikia izan nuen haiekin.

Zein klasetara joan zinen?

Irakurketen bidez banuen literaturaren soziologiaren berri. Batez ere, frantziar kritika berria interesatzen zitzaidan eta, bereziki,

Goldmanen literaturaren soziologia. Geroago, Barthes, Greimas eta frantses estrukturalisten taldea ezagutzeko aukera izan nuen. Eta hala, euren klaseetara joan nintzen.

Izan zenuen beraiekin harremanik?

Bai. Harreman ona eta nolabait positiboa izan nuen, nahiz eta gero horrek ezer zehatzik ekarri ez. Barthes, Goldman eta, Goldman baino gehiago, haren dizipuluren baten eskutik eurekin lan-kidetzan aritzeko eskaintza iritsi zitzaidan, baina artean Euskadira, Donostiara, itzultzeko nire tema horrekin jarraitzen nuen, zeren eta beti pentsatu izan bainuen neure egitekoa letretara ezik teologiara dedikatzea zela eta, azken batean, elizbarrutira sartzea.

Irakasle onak ziren?

Niri ez zitzaizkidan pedagogo onak iruditu. Baina bai jende oso interesgarria, literatur kritika frantsesaren ildoan sartzen lagundu zidatelako.

Donostian, Deustuko Unibertsitatean hasiko zara lanean.

Bai. Apezpikuarengana aurkeztu eta Filosofia eta Letretako fakultatean sartu nintzen, Patxi Altunarekin batera. Hasieran, gu biok baino ez geunden fakultatean eta ordudunik elkarrekin aritu izan gara lanean. Filologia denak jarri behar izan genituen martxan. Hasieran Filosofia eta Letretako fakultatea besterik ez zegoen han eta Espainiar Gramatika ematen hasi nintzen eta gero Hizkuntzalaritza. Zenbait urte geroago Filologia Erromanikoa jarri genuen martxan, eta gero, gainontzeko filologiak, euskalduna, ingelesa eta gainontzekoak. Handik aurrera, berriz, literaturak, lehenengo Espainiar Literatura eta gero Literatur Kritika. Ni Hizkuntzalaritza hasi nintzen ematen. Gure filologietatik ikasle asko igaro dira. Denetarik izan da, baina beti esango dizut niretzat bizi-indarra izan direla. Hainbeste dira aipa nitzakeenak Fernando Aranburu idazlea, Miren Azkarate, Iñaki Aldekoa, Jose Angel Askuntze, Iñaki Beti, Jesus Arzamendi, Mari Jose Azurmendi, Mari Jose Olaziregi eta beste asko.

Ez al zintuzten larritzen ia zerotik hasi beharrak? Patxi Altuna eta zutaz gain, beste inor gehiago izan al zen hastapen horietan?

Larritasuna, bai, bazen, neurri batean, ezagutzen ez genuen bide bati ekitera gindoazelako. Gero, hastapen horietan presentzia handia izan zuen hirugarrena Anton Artamendi izan zen.

Zein izan ziren gainditu behar izan zenituzten oztopo nagusiak?

Oztopo nagusietako bat espezialitate bakoitzerako programa bat osatzea izan zen. Jakina, irakasle egokiak aurkitzea ere bai, adibidez, Hizkuntzalaritza Erromanikoko klaseak emateko.

Noiz eta nola hasi zen euskara klaseko hizkuntza gisa erabiltzen? Gogoratzen duzu nola bizi izan zenuen?

Euskal filologia hastearekin batera, nahiz eta ordurako ikasle euskaldunekin genuen harremana euskaraz izan ohi zen.

Nola sentitu zara irakasle gisa? Atsegin duzu irakastea? Zer nabarmenduko zenuke zure lanetik?

Gogobete egin nau nire lanak, dedikazio handia eskatu izan didalako. Eta bai, atsegin dut “irakastea” eta “ikasten” dutela ikustea eta, hala, nire lanetik, nabarmenduko nukeena nire ikasleekin izan dudan harreman estu eta aberasgarria da.

Irakasle zinelarik, izan al zen bereziki harritu zintuen ikaslerik?

Idazle izatera iritsi diren ikasleak izan ditut eta beste batzuk politikari izatera iritsi direnak, eta geratzen den tarte horretan, denetarik.

Idatzi duzu irakaslea zahartu egiten den arren, ikasleak beti gazte irauten duela. Hainbeste urte irakaskuntzan eta, ikaslegoaren izaeran aldaketarik sumatu duzu?

Bai. Ikasketarakoan intentsitate txikiagoa. Gaur egun, ikasleak oso daude babestuta eta ekimenez eskas.

Zein dira zuzendu dituzun tesi-lanak?

Pila bat, baina, besteren artean, nabarmen nitzake Carlos Otegi, Ana Toledo eta Maria Jose Olaziregirenak.

Izan duzu ikerkuntza talderik?

Tira, Francisco Indurain eta Txomin Indurain irakasleekin lan egin izan dut, Julio Caro Barojarekin, César Hernándezekin eta beste askorekin. Bestalde, lankidetzaz estua izan dut Bordeleko Unibertsitateko Euskal Literaturako sailarekin, zehazki, Arkotxa doktoarearekin. CESICeko Luciano García Lorenzorekin ere ibilia naiz. Eta, gero, literatur sari askotako epaimahai-kide ere izan naiz, hasi Irun Hiria saritik eta segi Nazionaleraino.

MILITANTZIA

Zera, politika kontuetan ez naiz definitzen. Ezkerreko politika, eraberritzailea. Badut pasadizo bat gogoan: sekulartu nintzenez, nigana jo zuen lehenengo pertsonatako bat Patxi Altuna izan zen, EUTGko kidea urte askoan, lagun handia, eta orduan hizketan ari ginela esan zidan: “bueno, Txuma, orain politikari guztiak zure atzetik izango dituzu, baina, zu PNVra gero!” eta, tira, ez naiz partiduetan ibiltzen den politikaria izan eta botoa ematea tokatu izan zaidanean, partidu txiki edo bazterreko edo galtzaileei eman izan diet, nolabait esateko. Galtzaile peto-petoa izan naiz ni.

Bestalde, akordatzen naiz Salamancako apaiztegian nintzela ilaran jarri eta kantatu egiten genuela (*ahapetik zerbait kantatzen du*) “Banderas al viento”, abesti patriotiko horietako bat. Eta nik ez nuen kantatzen. Behin batean, ohartu da nonbait prefektoa nik ahorik ez nuela zabaltzen eta esaten dit: “Zuk ez duzu kantatzen, ezta?”, eta nik erantzuten diot: “ee, niri Beethovenen musika gustatzen zait”.

Eta erantzun hark ekarri al zuen ondorenik?

Ez, une hartan ez, nahiz eta nahiko jokaera erradikala neukan. Gogoan dut eztabaida oso gogor bat nola izan nuen Gasteizen filosofiako zuzendari espirituala zenarekin, filosofiako lehenengo urtean nintzela, eta akordatzen naiz honez gero hila den lagun batek, Larraurik, ospe pixka bat egin zuen konpositorea, nola komentatu zidan –oso bero aritu baikinaren eztabaidan– “aizu, errepidearen beste aldera igaro behar izan dut ze dena entzuten zen. Baina arrazoia zuk zeneukan”. Eta tira, ni, seminarioan, politikak

nahikotxo tentatu ninduen, hainbesteraino tentatu, filosofiako karrera utzi nahi izatearen arrazoietakoa bat kausa politikoa izan zela.

Zeri buruz ari zineten eztabaidan?

Bazen hor eskuindarra zen bat, bere ideiekin egoskortuta. Eta ni nintzen ba... (*Lourdesez amaitzen du esaldia: ezkertiar bat, bere ideiekin egoskortuta. Ze, egoskorkeria kontuan honi irabaziko dionik inor ez da, gero!*) Eta apaiztegian, garai hartan, akordatzen naiz arrosarioa errezatzerakoan, arratsaldero, garrantzia handia izaten zuela Espainiaren aldeko otoitzak eta horrek irakiten jar-tzen gintuen, ezta? Baina, tira, hortik ere pasa egin behar.

Noiz arte izan zinen Gasteizen?

Bota ninduten arte.

Nola?!

Bai, bota egin ninduten, antza, ongi portatzen ez nintzelako eta orduan ...

Ez zara kamutsa, gero ...

Bai, tira. Erakunde guztietatik bota izan naute ni.

Zenbat urte diozu zenituela Gasteizko apaiztegitik bota zintuz-tenean?

Hamaseiren bat. Tira, orduan, Antiguako erretoreak, on Marcelino Kortaberriak, ni etxean gelditzea denbora galtze bat zela pentsatu zuen, urte baterako bota baininduten, eta tokia bilatu zidan Salamancan. Eta han joan nintzen Teologiako lehen urtea ikastera.

Eta Salamancan geratu zinen ...

Ba, urte bat, ze Salamancan urte bete egin ondoren ia bota egin ninduten berriro.

Zein arrazoi zehatzengatik bota zintuzten?

“Nire jokabidea eredugarria ez zelako”.

Baina zergatik, ez zenuen nota onik ateratzen? Agintariekin eztabaida egiten zenuen?

Nota onak bai, ateratzen nituen. Nik beti atera izan ditut nota bikainak, baina eztabaidan aritzen nintzen. Josefino famatuak zeuden Salamancan, apaiztegia zuzentzen eta haiekiko nire desadostasuna errotikoa zen. Kontua da Salamancan urte bete egin ondoren, Donostiako apezpikuarekin izan nintzela, Bereziartuarekin, eta komentatu nion ez nuela Salamancan egon nahi eta Donostiara itzuli nahi nuela. Esango zidan: “zuk diozu ez duzula Salamancan geratu nahi, Donostiara itzuli nahi duzula, baina itxura denez han ere ez daude oso gustura zure portaerarekin, honengatik eta hargatik, beraz, Donostian geratu nahi baduzu, geratuko zara ...” ez dakit zehazki zer esan zuen “errukiagatik”, edo antzekoren bat. Donostian zorte ona izan nuen Donostiako errektoreak oso ongi jokatu zuelako nirekin eta oso ongi tratatu ninduelako eta, nire iraganak nire etorkizunean eraginik izan gabe, ikasketetan normaltasunez jarraitu ahal izan nuelako. Ikasurtea amaitzean, nik neuk eskatu nuen Salamancara itzultzea, hirugarren urtea egitera. Izan ere, nik batxilergorik ez neukan, eta artean unibertsitateko karrera batean sartu ahal izateko batxilergoa edo Teologiako lizentziatura bat behar izaten zen. Teologiako lizentziatura urte batean eskuratu eta horrekin ikasketa zibiletarako bidea ireki zitzaidan. Handik aurrera Filosofia eta Letren ikasketekin hasi nintzen. Lehenengo, Salamancan ikasurte bat, ikasgai komunak egiten, eta gero, Complutensera joan nintzen Filologia Erromanikoko espezialitatea egitera.

Hogeita bat urterekin, Salamancatik Madrila joango zara. Madrilen San Juan Evangelista ikastetxe nagusian hartu zenuen ostatu.

Kolegiora iritsi nintzenean, hasieran, kaperau postua eskaini zidaten. Proposamena Cobetak egin zuen, ikastetxeko zuzendaria. Unibertsitateko bizitzarekin oso konprometitu zegoen per-

tsonalitatea zen, zoritxarrez, buruko minbiziak oso garaiz eraman zuen. Jesús Cobeta izan zen ikastetxe nagusien beste ikuspegi bat landu zuena. Adibidez, otorduetarako sistema berri bat sartu zuen. Orain orokorturik dagoen zer bait, otorduen kontua asko errazten duten erretiluen kontua-eta. Garai hartan San Juan Evangelistan unibertsitate bizitza handia zegoen, jarduera asko antolatzen ziren.

Zeri buruz ari zara, seminario, hitzaldi, antzekizunei buruz?

Bai, bai. Eta, baita gauza gehiago ere. Antzerki jarduera oso garrantzitsua zegoen, inguru-minguru zebiltzan hamaikatzeko talde unibertsitario baziren eta, ongi nork hartu ez zutenez, San Juanek euren antzezlanak prestatu eta aurkezteko tokia eskaini zien.

Zer antzezlan mota ziren?

Une hartan European egiten ari ziren gauzak. Klasikoak ere bai, baina San Juan Evangelista, batez ere, antzezlan moderno eta garaikideentzat irekitako leihoa zen.

Gogoan duzu oihartzun berezia izan zuen antzezlanik?

Ba, bai. Brechten lanen baten antzezpena nabarmenduko nuke, garai hartan debekatuxe zegoena. Ohiko eskenatokietan lekurik ez zuen bestelako antzezlan konprometituak ere izaten ziren.

Eta, arazorik ekarri al zizuen horrek?

Bai, asko. Aitortu behar da arazoak garrantzitsuak zirela. Alegia, jarduera hauek beste kolegio batzuetan ez ziren normalak. San Juan Evangelistak etapa edo norabide bat markatu zuen ikastetxe nagusietan.

Zigorrik jarri al zizuen erregimenak?

Ezin da esan zigor dei lekiokoenik jaso genuenik. Behin baino gehiagotan egin ziguten gaztigu. Nik uste, eliz hierarkia ez zela enteratzen egiten genuenaz. Aginte zibila izan zen, batez ere, ikastetxean egiten genuena nolabaiteko interesez jarraitzen zuena, erregimenaren aurkako jarduerak zirenez.

Lehenengo etapa hartan, zein izan zen Madrilgo zure lagunartea?

Ikastetxeko kideak, Jesús Cobeta zuzendaria zela horien buru.

Esan duzu, Madrilen geratzeko aukera izan arren, Euskal Herrira itzuliko zinela beti izan duzula argi.

Ez bakarrik Euskal Herrira, baizik eta baita nire elizbarrutira ere. Nik garbi neukan elizgizona izan nahi nuela eta elizgizon gisa itzuli nahi nuela nire sustraietara. Hori zen sakoneko nire helburua. Hala ere, nire helburu hori desegiten hasi zen JECek egiten zuen lanean sartuz joan nintzenean. JECeko kontsiliario nazionala izan nintzen, eta gero, europar kontsiliariora. Elizgizon izateari ez nion ukorik egiten, baina JECen eta estudianteekiko lanean zenbat eta gehiago sartu orduan eta argiago hasi nintzen ikusten nire bokazioan elizkoitasunik ez zegoela batere, eta horrek nire apaiz bizitzatik urruntzera eramanez ninduen, eta geroz eta gehiago sekularizatera.

Zer zen JECa?

JECa ikasleetan espezializaturiko ekintza katolikoa zen. Garai hartan ekintza katolikoak era ezberdinetako espezializazioetan funtzionatzen zuen. Ekintza katolikoa, nola esan, urte haietako eliza militantearen zerbitzu apostolikoa zen. Gazteria katolikoa garrantzia ezberdineko sail ezberdinetan taldekatzen zen. JOCa, lehenengoa, gazteria langile katolikoa JECa, gazteria ikasle katolikoa; eta JARCa, gazteria nekazari katolikoa². Gero, “Pax Romana” ere bazegoen, baina beste lerro bat jarraitzen zuen, konterbadoreagoa, ez hain militantea. Elizaren izpiritu militantea, garai hartan, mugimendu apostoliko hauek ordezkatzeko zuten, hainbesteraingo ze hierarkiak izaera erlijiosorik erakusten ez zuten sekularismoa aurpegiatu zigun.

Noski, orduan partidu politiko eta sindikaturik ez zen eta...

Bai. Hori da errealitatea. Gainera, JOC, JEC eta JARCeK, elizako laikoen konpromisoari erantzuten zioten mundu guztian. Hala bada, nazioarteko tamaina zuen.

Nola iritsi zinen kontsiliario nazional izatera? Zer ikusi zuten zuegan?

Kontsiliario nazionala aukeratu zenean ni kontsiliarioa nintzen Madrilgo edo Espainiako emakumezkoen JECen. Purita Prieto izan zen, emakumezkoen JECeko zuzendarietako bat, bide horretatik eraman ninduen. Estimua handia zidan, elkarlanean arituak baikinen eta unibertsitatean ere, elkarrekin. Filosofia ikasi zuen berak nik Filologia Erromanikoa egiten nuen bitartean eta, testuinguru honetan, bera izan zen emakumezkoen JECrako proposatu ninduen.

LourdeseK: *“on puska kontestatario bat zelako”, Puritak esana.*

Eta, zein desfiori egin behar izan zenioten aurre, zein uste izan zenuten izan zitezkeela erantzunak, zein eztabaidak?

Nire lana zuzendarien bilerak izpiritualki laguntzea zen, aholkuak ematea eta mugimendua gidatzea. Unibertsitateko otoitz egiten ote zuten ala elizara joan zitezten begiratzen ibili ordez, guk, konpromisoa praktika militante gisa ulertzearen alde egiten genuen. Alegia, guretzat puntu hau oso zen garrantzitsua. Metodoa zen “ikusi, epaitu eta ekin”. Probetxu handiko urteak izan ziren ikuspuntu izpiritualek, hainbestearino ze esan izan baitut JECen egindako lanen errentetatik bizi izan naizela. Tira, JECek unibertsitatearen problematikari erantzuteko bokazioa hainbestekoa zen, zenbait apezpikurentzat pixka bat subertsiboak ginela. Hierarkiak gugandik espero zuen lerrotik irteten ginen eta tenporalismoa aurpegiratzen zigun, hau da, egunean egunekoaz arduratzen ginela arazo erlijiosoei buruz baino gehiago. Apezpikuen tenporalismo salaketak JECi soilik ez, gainontzeko mugimenduen ere eragin zien. Honela, azkenean, ekintza katolikoko mugimenduen krisia apezpiku atzerakoi ea kontserbadoreenaren aldetik iritsi zen. Akordatzen naiz 1970 inguruko oporraldi batean mu-

gimendu espezializatu gisa mantendu ala ordura arte jarraitu genuen bidetik irtengo ginen planteatu zela.

Zer egin zenuten?

Madrilen egindako asanbladan bozketa moduko bat izan zen. Madrilgo apezpiku mosen Morcillo, ekintza katolikoko kontsiliario nazionala, ez zen gurekin ados. Guk, orduan, amarru bat baliatu genuen eta zen, nik, saltsa horretako perrexila nintzenez, asanblada zaintzera etorriko zen apezpikua beste kontu batzuei buruzko hizketarekin distrautuko nuela eta bitartean, zein norabide hartu erabakitzeke bozketa egingo zela asanbladan. Apezpiku hau, halere, uste dut Sigüenzakoa zela, jokaldiaz jabetu zen eta bozketa manipulatu genuela uste izan zuen. Kontua da bozketa hartan ekintza katolikotik banatzea erabaki genuela eta mugimendu paralelo bat sortzea, JEC izendapenarekin eta eginkizun berberekin jarraituko zuena. Ideia honek aurrera egin zuen eta halaxe jarraitu genuen, baina lehenago geneukan hierarkiaren kargarik gabe. Orduz gero ez zen JEC maskulino eta JEC feminoaren arteko bereizketarik izan.

Eta gero?

Europar kontsiliario hautatu ninduten. Akordatzen naiz postu hori onartzeko libre nengoen galdetu zidatela eta txiste batekin erantzun nuela: “ni libre egon, gaur egun Espainian libre egon daitekeen neurrian nago”. Baina bai, europar kontsiliario postua onartzeko moduan nengoen. Ez nintzen luzaz izan postu horretan hondamendiaren bezperan baikinen, JECaren sakabanaketaren bezperan, alegia, eta elizbarruti bakoitzak nork bere aldetik joatea erabaki zuen, bakoitza bere sistemarekin eta orduan europar kontsiliariora zereginik gabe geratu zen.

Baina hau une berean Frantzia, Italian, toki guztietan gertatu al zen?

Ez, ez. Frantzia, Italian, egoera ezberdina zen. Frantzia JECak bere horretan iraun zuen. Italian JECik ez zen existitzen

edo existitzen bazen, oso egoera behin behinekoan, behintzat. Era berean, Alemanian JECek mantendu zuen lerroa ez zegoen konpromisoari hain loturik. Espainian izan zen JEC zaharraren eta eraberrituaren arteko haustura gogorra.

Zein zen maila nazionalaren eta europarraren artean ekitearen arteko diferentzia?

Egia esan diferentzia handirik ez zegoen, JEC europarrak berezko jarduerarik ez zeukalako. Hori bai, europar kontsiliario gisa Madrilen jarraitzen nuen baina denboraldi batzuk Parisen igarotzea bezalako konpromiso exigenteagoekin. Horrek ikusmira zabaltzen dizu eta zure jarduera mailak ez dira kontzientzia nazional batek ematen dizkizunak baizik eta europarrak. Dena den, osasun arazoak zirela-eta, utzi beharrean izan nintzen. Balbula bat jarri zidaten bihotzean, Madrilen jarri ziren lehenengotakoa. Eta hori eta gero, Donostian geratzea erabaki nuen.

LITERATURA ETA IRAKURKETA

Pentsatzen dut zuri, literatur kritikari zaren aldetik, irakurtzea gustatuko zaizula. Zein dira zure autore gogokoenak?

Zera, autore jakinak baino esango nuke autore askoren lan solteak gustatzen zaizkidala. Gazteleraz idazten duten autoreen artean harrapaturik naukana Baroja da eta Unamuno ere maiztasunez berrirakurtzen dut. Beraz, gazteleraz idazten duten euskal idazleen artean, Baroja eta Unamuno aipatuko nituzke. Baroja, batez ere.

Zein duzu Barojaren lanik gustukoena?

“La lucha por la vida” trilogia, beharbada. Eta, gero, “Maribeltxa” ren ipuina eta “Jaun de Alzate” nobela. Azken honek antzezlan itxurako gauzak dauzka, baina Barojaren nobela libreenetako bat iruditzen zait. Barojak estilo anbiguo eta librea dauka, arauelotzen ez zaiena eta uste dut “Jaun de Alzate”-k ezaugarriok betetzen dituela. Eta “Maribeltxa”, ba, ikuspuntu literariotik betebetean asmatzen duela iruditzen zait niri. Bi orrialde baino ez dira, baina uste dut direla ongi egindako gauza baten adibidea, gauza perfektu batena, nolabait. Gainera, uste dut Baroja misoginoa zelako ideia hori hankaz gora botatzen duela. Barojaren misoginian ez dut sekula sinetsi izan nik, baina nola kritikoek askotan azpimarratu izan duten, nik Pio Barojaren ustezko misoginiaren ideiar bidea itxi diot, bere nobeletan eta ipuinetan ageri diren pertsonaiak hartu eta ikuspegi misoginoarekin bat ez dartzela agertuz. Eta nabarmenki positiboak diren emakumezkoen artean “Maribeltxa” dago.

Baina Txuma, ohartzen al zara literatur kritikari gisa ari zarela hizketan eta ez literatur gozatzaile gisa. Betidanik izan al duzu joera hori? Betidanik izan al zara kritikaria irakurketarako orduan?

Nik uste dut baietz, zaila da joera hori alde batera uztea ... ni beti izan naiz irakurri dudanarekiko kritikoa. Gertatzen dena da izpiritu kritiko hori garai batzuetan beste batzuetan baino gehiago islatu dela.

Nondik datorkizu irakurzaletasuna?

Betidanik izan naiz literatura irakurlea.

Literaturaz interesatua jarraitzen duzu? Zein liburu irakurri dituzu azkenaldi honetan? Zein nahi zenuke irakurri?

Interesatua jarraitzen dut, bai. Lertxundiren azkena irakurri dut eta Pagolaren liburuak. Liburu guztiak irakurri nahi nituzke, baina ez daukat hainbesterako ahalmenik.

Hitz egidazu epaimahaikide gisa izan duzun esperientziaz.

Nire esperientzia positiboa da. Lanak irakurri, epaitu eta irizkiak trukatzeko dira epaimahaiko kideekin.

Aipa iezadazu markatu zaituen libururen bat.

“Jaun de Alzate”. Izpiritu zeharo libre batez idatziriko lan gisa definitu izan dut.

2. ZATIA

EUSKAL LITERATURAREN HISTORIA

Idatziren batean “euskal literatura” zer ote den eta “euskal idazle” izendapena nork merezi duen galdetzen zuen polemika bat gogorarazi duzu. Zuk adierazitakoaren arabera, hasteko garrantzitsua da bereiztea “idazleei” buruz ala “literaturari” buruz ari garen.

Nik bereizketa bat ezarri nuen euskal idazlearen eta euskal literaturaren artean. Euskal idazlea, nire iritziz, zentzu zabalean, Euskal Herrian jaiotako idazle oro da, begiratu gabe literatura egiteko zein hizkuntza erabiltzen duen. Bestalde, euskal literatura euskaraz idatziriko literatura dela uste dut.

“Harrera literarioak” duen garrantzia azpimarratuko duzu. Zertan den azalduko zeniguke? Ibon Sarasolak euskal literatura apaiz-literatura zela idazterakoan, zuk diskutitu egingo diozu esanez kontua ez dela apaizek idatzi duten ala ez, baizik eta, sinpleki, prosa hutsaren eta literaturaren arteko bereizketa egin behar dela.

Harrera literarioak literatur lanaren irakurleari egiten dio erreferentzia. Irakurlearen eta lanaren arteko harremana da. Ibon Sarasolari eman nion erantzunari dagokionez, nik diodana da literaturak ez duela zerikusirik testua apaiz batek idatzia izatearekin ala ez. Ez da literatura euskaraz idatziriko edozein testu, horretarako testuak une jakin batean literaturatzat hartzen denaren barruan sartu behar baitu, autorea edozein dela ere.

Zure iritziz, euskaraz argitaraturiko lehenengo liburua 1545ekoa bada ere, ia XX. mendera arte ez da “euskal literatur sistemarik”

egituratuko. Gero, hein batean, prehistoria edo protohistoria luze bati buruz ari gara. Zein dira zuretzat prehistoria literario luze honen mugarri nagusiak?

Prehistoria luze honetan XVI. mendetik XIX. mendera bitartean idatziriko testuak sartzen dira. Niretzat, mugarri nagusiak Axular eta Etxepare dira. Gero, XIX. mendean, euskal prosaren jaiotza eta poesiaren lehenengo pausoak.

Baduzu sasoi aurre-literario horretako autoreen artean kuttunik?

Bai, Axular.

Euskal prosak eta poesiak izan dituzten eboluzioak bereizten dituzu.

Bai, noski.

Garrantzia handia emango diozu nobelari. Modernitaterako sarrrera esan nahi duela diozu.

Hala uste dut, izan ere nobelak, literatur genero bezala, beste genero batzuek ez duten heldutasuna du.

Euskal literatura Mendebaldeko gainontzeko literaturekin batera ulertu eta esplikatu behar dela uste duzu. Orain, era berean, ezaugarri nagusia atipikotasuna duela adieraziko duzu. Zertan datza euskal literaturaren atipikotasuna eta zertan gainontzekoen tipikotasuna?

Bai, uste dut euskal literatura Mendebaldeko gainontzeko literaturekin batera ulertu behar dela. Atipikotasuna azpimarratzen dut euskal literaturak beste literatura batzuetan ematen ez diren ezaugarri batzuk dituelako, adibidez, ahozko literaturaren garrantzia, bere izaera berantiarra eta abar. Beste literaturek Mendebaldeko literaturen koordenada komunei erantzuten diete.

Gazteleraz idatziriko espainiar eta euskal nobela erregionalistaren eta, nolabait esateko, euskaraz idatziriko lehenengo nobelen artean jarraitasunik egon dela esan liteke?

Bai, batez ere gai aldetik; kontua da literatur sistema ezberdinetan mugitzen direla.

Euskal literaturaren bilakaeran, Guda Zibila haustura ala parentesia izan zen?

Haustura, argi eta garbi, euskal literaturaren ildoak eten zireta.

Zuzena al da lehenengo euskal nobela, eduki aldetik, Txillardegiren “Leturiaren egunkari ezkutua” eta, forma aldetik, berriz, Saizarbitoriaren “Egunero hasten delako” izan zirela?

Bai, hala da. Txillardegik, edukiaren aldetik, ohiturazko nobelarekin hautsiko du eta Saizarbitoriak, berriz, ordura arte ezagutu zen nobelaren eraikuntza moduarekin.

Autonomi aroan euskal literatur bizitza berri bat egituratuko da, zeinaren oinarritzko zutabe izango baitira, idazleez gain, noski, irakurleak, argitaletxeak eta literatur kritika, izan akademikoa izan egunkarietakoa. Txuma, zuk bertatik bertara bizi ahal izan duzu euskal narratibaren “sintonizazioa”. Formaren fetitxismoa erortzeko arriskua azpimarratu zenuen. Baina, literatur kritikari gisa, imajinatzen dut zeharo interesgarri izango zitzaizula zure jakintza teorikoak forma konbentzionalei desafio egiten zieten nobelen analisirako erabiltzea, ezta?

Horixe.

Bere garaian, lehenago egin zirenen akats eta mugak zuzenduko zituen euskal literaturaren historia bati ekiterako orduan, ikuspuntu formalistaren eta ikuspuntu marxistaren arteko hirugarren bide bat bilatzea proposatu zenuen.

Gehien jarraitu dudak eredia semiologikoa da. Uste dut eredu honetan, nolabait, literaturaren eboluzioaz formalistek ematen zuten azalpen autonomo eta inmanentea eta marxistek defendatzen zuten azalpen sozial eta genetikoa uztartzen zirela. Ni iritsi nintzenean eredia “edukinorra” zen, hitzaren zentzu txarrean. Kritika modu oso subjektiboa zen, kritikariaren oso arabera.

Saizarbitoriaren nobelen artetik, zein da gehien atsegin duzuna? Zergatik?

“Ehun metro” rekin geratuko nintzateke, nahiz eta egia den bere garaian esan nuena oso eskematikoa eta gutxi garaturikoa zela.

Bathkinen metodologia erabili zenuen, batez ere, lau lanen azterketa egiteko: “Egunero hasten delako” eta “Ehun metro”, Saizarbitoriarenak eta “Abuztuaren 15eko bazkalondoa” eta “Manu Militari”, Joxe Austin Arrietarenak. Bathkin interesatu zaizun kritikaria da. Zergatik?

Bathkin, nahiz eta semiologoa izan ez, lehenengoa da ikuspuntu formalista eta marxista uztartzen.

“Trangresioa” aipatzen duzu eta baita “autonomia” ere. Esan liteke euskal literaturara hausturaren ondoren iritsi dela autonomia? Hala bada, zein dira zure ustez nobela hausleen artean erakusgarri behinenak eta zein, lehenengo nobela autonomoak?

Nobela hausleen artean hiru nabarmenduko nituzke: “Ehun metro”, “Manu militari” eta “Ene Jesus”.

Uste duzu gaur egungo euskal literaturan beste literatura batzuetako lanen mailakorik aurki daitekeela. Hala bada, zein direla uste duzu maila horretara iritsi ziren lehenak?

Bai, badira maila handikoak. Aipatu berri dizkizudan hirurak dira nire ustez lehenengoak.

Jesus Mari, uste dut lehenengoa izan zinela euskal narratiba modernoaren antologia bat egiten. Zein oroitzapen duzu antologia hartaz? Zer nolako harrera izan zuen?

Egia esan, ez dut oso oroitzapen onik gordetzen deskubritu nuelako euskaraz idazten zuten autoreek ez zutela gaztelera nahikoa ongi ezagutzen. Beraiek arduratu ziren testuen itzulpenaz eta, salbuespenak salbuespen, gaztelararen erabilerak bazuen zer hobetu. Zuzenketaren bat ala beste egin beharrean izan nintzen. Gero, harrerari dagokionez, oso murrizta, ez zuen interes handirik piztu.

UNAMUNO

Zure idazle gogokoenetako bat Unamuno da. Noiztik? Zergatik? Zein direla esango zenuke bere obraren ezaugarri nagusiak?

Seminarioan begitan harturiko autorea zen Unamuno. Nik ez nuen Unamunok euskarari buruz zeuzkan tesi erradikalekin bat egiten. Baina, bestalde, erakarri egiten ninduten bere indarrak eta sakontasunak. Uste dut problematika unibertsal bat jakin zuela ukitzen, giza kondizioari buruz pentsatzen jakin zuela, “existentzialista” izan zen heinean. Egia ere bada gazteleraz aritzeko modu latz samarra zuela.

Bere hiru lan hautatu behar bazenitu, zein izango lirateke? Zergatik?

Aukeratuko nituzke “Niebla” eta “San Miguel Bueno Mártir”, bere sakontasunagatik.

Unamunorengan berezi egin behar dira “esandako hitza” eta “bizitako hitza”. “Biluztasun tragikoa” eskatzen du antzerkiarentzat. Nola ulertu behar da Unamunoren antzerkia espainiar testuinguruan? Eta europar antzerkiaren testuinguruan?

“Biluztasun tragikoa” da Unamunori egiazki interesatzen ziztzaion gatazka dramatikoa agerian uzteko balio zuen formula. Gatazka hau kontzientziaren baitan ematen denez, hitza bera da pertsonaien ekintza nagusia, errealitatearen espresio egiazkoena. Alde horretatik, Unamunoren hitzak esana behar du izan, antzerkiaren bidez. Espainiar testuinguruan Unamunoren antzerkia une hartan modan zegoenaz arras bestelakoa da. Testuinguru europarrean antzerki existentzialistaren barruan koka liteke.

Jakingarria da Unamuno eta Campionen dema, bata “espainiar jatortasuna” eta bestea “euskal jatortasuna” aldarrikatuz. Zertan dira jatortasun hauek? Lehenak “Paz en la guerra” idatziko du; bigarrenak, “Blancos y negros: guerra en la paz”. Aipa ditzakezu bi nobela hauen bertute eta akatsak?

Unamunorena askozaz nobela hobea da.

Baroja al da euskal arima atzematen ongien jakin duen idazlea?

Bai, dudarik gabe.

Batez ere, zein nobeletan lortu du hori?

Euskal tetralogian: “La casa de Aizgorri, Zalacaín, el aventurero”, “Jaun de Alzate” eta “El señorío de Labraz”. Eta lau hauen artetik, interesgarrienak, dudarik gabe, “Jaun de Alzate” eta “Zalacaín, el aventurero” iruditzen zaizkit. “Jaun de Alzate” da niretzat, ez dakit onena, baina bai Barojaren nobelarik originalena, egiten duen gaiaren aurkezpenegatik eta gai horri ematen dion erantzun ugaritasunegatik.

“Jaun de Alzate” idazketaren inauteria bat dela, zergatik diozu?

Inauteri idazkera delako azalez nahiz mamiz, nobelatik pasearazten dituen pertsonaiengatik eta pertsonaia hauek inauteria islatzen dutelako nolabait. Horregatik esaten du idazketaren inauteri bat dela.

“Jaun de Alzate”n Barojak ageri duen eszeptizismoa aipatu izan duzu, hala iraganeko garaietara nola orainera hedatzen dena. “Jaun de Alzate”n, Barojak aditzera ematen du berak ez duela kristautasunean sinesten baina era berean, ederra izan arren, euskal mitologiako munduan ere ez duela sinesten. Bere eszeptizismoarekin identifikatua sentitzen zara?

Barojak kristautasunaz duen ikuspegiarekin eta existentziari begiratzeko moduekin ni, kasu askotan, ez nator bat, baina, funtsean, partekatzen dut eszeptizismo barojiarra. Miretsi egiten

dut eta, ados nago Barojaren baieztapen askorekin mito zahar asko suntsitzen dituenen.

1989an idatzi duzu euskal narratibak baduela nolabaiteko zorra Barojarekin, nobela barojiarretik igaro behar lukeela, bereziki euskal gaiari dagokionez. Zer esan nahi duzu horrekin? Uste duzu egun ere eredu barojiarra pertinentea dela?

Nik uste dut baietz. Alde horretatik, euskal nobelak ez du Barojaren nobela irekiaren eredia nahikoa ondo asimilatu.

Josep Pla idazle kataluniarrak esaten zuen bere iritziz Baroja zela idazlerik onena; baina ikaragarri txarra zela nobelista. Zein da Barojak nobelaz duen ideia?

Horrek Baroja idazlearen kontraesan bat islatzen du. Zeren eta idazle miresgarria da eta modakoa beti, baina bere nobela eredia egon liteke, ez dut esango pasatua, baina bai pasatzeko arriskuan. Nobela generorik polimorfoena da eta Barojak, nahiz eta teknika hori erabiltzen duen bakarra ez izan, nobela berez irekia den generotzat dauka. Baina kontu hau laburki esplikatzek oso urruti eramango ninduke ...

Zein da Barojaren lanean atseginen duzun ezaugarria?

Soiltasuna eta pertsonaiak sortzeko gaitasuna.

Zein dira zure lan gustukoena? Zergatik? Hamabost urteko gazte bati zein lan aholkatuko zenioke? Eta berrogei urteak pasaak dituen bati?

Uste dut Barojaren obran garrantzitsuena lehenengo zatia dela. Nire gogokoena "La lucha por la vida" trilogian sartzen diren nobelak dira, hau da, "La Busca", "Aurora Roja" eta "Mala hierba", mende hasierako Madrilen aparteko erretratua osatzen dutelako. "Aristokrata anarkista" bat izateko oso ongi ezagutzen ditu kale izkina zikinenetako kontuak, beharbada, ia Dickensek bere garaiko Londresekoak ezagutzen zituen bezain ongi. Honi dagokionez, irakurtzekoa da Lourdesen tesian paralelismo hau

lantzen den atala. Gero, aholku ematen hasita, hamabost urteko gazteriar “Las inquietudes de Shanti Andia” aholkatuko nioke, oso erraz eta gustura irakurtzen delako eta, berrogeiak gainditu dituztenei, “El árbol de la ciencia”.

Zer da itsasoa Barojarentzat?

Itsasoa nobela barojiarraren gakoetako bat da eta, beste alde batetik, itsasoa, bere horretan, Baroja sartu baina sartzan ez den misterio moduko bat da. Itsasoko nobelak dira, agian, nobela barojiarraren adibide argienak. Abentura espazio zabal bat, irudimenaren eta idazketaren abenturarena.

Badirudi, nobela historikoa zela-eta, Galdosek Barojagan ikusi zuela bere oinordekoa. Baina Galdosen nobelista eta Barojarena ez dira bera. Ez al da pixka bat harrigarria Baroja hogeita bi liburuki eskaini izana “Memorias de un hombre de acción” sailari?

Tira, kontuan izan behar da “Las memorias de un hombre de acción” ez dela historia hutsa, baizik eta aldi berean nobela eta historia.

Baroja bere historietan nabarmentzen den idazlea da. Zein dira zure ustez bera argien ordezkatzan duten pertsonaiak?

Nik ia bere pertsonaia nagusi denak esango nituzke.

Zein da Barojaren pentsamendu erlijiosoa?

Barojak erlijioa kritikatzan zuen, baina, batez ere, erlijioak gizartean zuen eragina. Erlijioa bera baino, erlijiozkoak alderdi sozialean zuen eragina kritikatzan zuen, zenbait pertsonaia eta mailatan zer nolako tokia hartzen zuen. Barojak pertsonaia batzuen erlijiozko aldea oso gogorki kritikatzan du. Barojaren apaizak, adibidez, oso gogorki kritikatzan dira, nahiz eta egia ere baden gehiago kritikatzan direla alderdi soziologikotik alderdi erlijioaren alderdi funtsezko edo existentzialetik baino.

Agnostikoa zen.

Bai. Izaera nolakoa, apaiz bati ala besteari izango zion errespetua halakoa izango zen. Jantziari baino gehiago begiratzen zion pertsonari.

Zein iritzi duzu Gabriel Celayari buruz?

Gabriel Celayak poesiari eta idatzi zuen obrari buruz asko pentsatu zuen. “Exploración de la poesía” titulua eta beste batzuk poesiari buruz egin zituen gogoeta teorikoen jarraipena izan zen.

Gabriel Celayak gizarte gaiekiko sentiberatasun oso handia zeukan, baina, ematen du, poesia bizitzeko zeukan modua, indibiduala, inspirazioari leku egiten zitzaiona, sentiberatasun horrekiko nolabaiteko kontraesanean balego bezala bizi zuela.

Egia da hori. Gabriel Celayak poesiari buruz asko pentsatu zuen eta liburu ugari idatzi zituen horri buruz. Alde batetik, esan behar da Gabriel Celayak garrantzia handia eman ziola poesia-ren faktore sozialari, poesia sozial deitzen zitzaionari edo berrogeita hamarreko hamarkadan modan egon zen literatura sozial delakoari. Bestetik, modu erabakigarrian hartu zuen parte garai hartako eta, are, hirurogeiko poesiaren eraberritzean eta Celaya bera poesia experimental baten autore ere izan zen, beraz, bi alderdiak eman ziren, soziala eta experimentalak.

Gabriel Celayak, poesiari buruz teorizatu zuenean, “edukia” eta “forma” bereizi zituen, baina gainera, baita “atzea” ere.

Berak forma eta edukiaren arteko bereizketa egin zuen eta formaren eta atzearen artekoa. Atzea, beretzat, edukiaren parte zen. Atzea eskuarki eduki gisa ulertu ohi dena litzateke, eta edukia, berriz, poesiaren alderdirik sozialena.

Txuma, noiz hasten zara Ignacio Aldecoaz interesatzen? Zergatik? Zerk ematen dizu atentzioa bere obran?

Benetan doktore-tesia egitea serioски planteatzen dudan unean hasiko naiz interesatzen. Esan liteke, harengana eskusioz iritsi nintzela: Aldecoa, hila baitzen, lana buruturik eta itxirik zeukan idazlea zen, gainera obra nahiko laburra eta, gero, gazteleraz idazten zuen Euskal Herriko egilea zen. Ordurako gazteleraz idazten zuten egileak aztertzeke erabakia hartua nintzen. Noski, gero, tesian eta bere obran sakondu ahala, interesa ere handiagotuz joan zen. Uste dut Aldecoaren prosa gutizia hutsa dela eta estilo oso pertsonala duela eta literatur baliabide originalak. Bere lanean atentzio handiena ematen duena estiloaren perfektzioa eta prosa zaintzeko hartzen duen arreta da. Gaiari dagokionez, “ofizioen epika” deiturikoa azpimarratuko nuke, itsasoaren gaia, bere nobela gorena den “Gran Sol”ekin, nahiz eta bere azken nobela ere kontuan hartzekoa den, “Parte de una historia”.

Zein da Ignacio Aldecoaren lana kokatu behar deneko testuingurua?

Berrogeita hamarrekoko hamarkadako nobela errealista, nobela soziala ere esaten zitzaiona, baina isuri existentzial oso nabarmenduna. Existentziala Aldecoarengan oinarritzko elementua delakoan nago.

Madriren bizi den euskal herritarra. Gizarte gaiei buruz nahiz alderdi existentzialari buruz kezkatua. Zuzena da, hein batean, berarekin identifikatua sentitu zarela?

Bai, asko. Ni ere gizarte gaiek eta alderdi existentzialak kezkatzen ninduten, eta euskal herritarra nintzen Madrilen, garrantzia hurrenkera horretan. Nire tesian haren nobeletako prosaren oso antzeko estiloa erabili nuen, hainbeste eragin zidan-eta.

Tesiari dagokionez, haren alargun Josefina R. Aldecoarekin jarduteko aukera izan zenuen. Zein oroitzapen gordetzen duzu? Izan zara harekin geroago inoiz?

Bai, asko jardun nuen. Oso pertsona atsegina da, bere senarraren lanari buruz aritzeko zuzendu nintzaionean interes handiz hartu ninduen. Josefina ere arrakasta handia izan duten nobela idazlea izan da, baina inoiz ez zion bere senarraren literatur sorkuntzari enbarazurik egin. Orduz gero izan dut berarekin egoteko aukerarik. Horietako bat Errege Jauregian, Cervantes sariak zirela eta, erregeak eman ohi duen harreran. Ni, orduan, Literatur Sari Nazionaleko epaimahaikidea nintzen.

Bere lanak aitopenik baduen arren, ematen du Ignacio Aldecoa espainiar literaturaren kanonean pixka bat bazterrean geratzen dela. Zergatik uste duzu gertatu dela hori? Zure ustez, zein toki dagokio Aldecoari espainiar literaturaren barruan?

Bai, egia da pixka bat bazterrean geratu dela eta, literatura sozialaren barruan, toki nabarmena bete behar lukeela. Zergatik jazo den hau? Lehenengo, Aldecoa literatura sozialaren mugimendu guzti horrekiko ezaxola agertu zelako, nahiz eta bere nobelak neurri sozial eztabaidea edukitu. Garai hartan protagonismoa nobela sozialaren ordezkariak eraman zuten, Juan Goytisolok, Sanchez Ferlosiok eta abarrek. Nik uste dut Aldecoak aitortu zaiona baino kategoria handiagoko tratua merezi duela. Egia ere bada oso gazte hil zela eta, agian, denbora “falta” izan zitzaiola finkatzeko.

Zertan zetzan “ofizioen epika” delako ideia? Itxura denez, Aldecoa kontzepzio honetan oinarrituriko hiru trilogia osatzekoa zen. Txuma, zuk uste duzu Aldecoak hiru trilogia horiek osatuko zituela?

“Ofizioen epika” lanbide handien eta horien ordezkarien bitartean trataera literarioan datza, adibidez, arrantzaren eta arrantzalearen bizitzaren trataeran. Nik ez dut uste hiru trilogia horiek osatuko zituenik haren nobelagintzak beste bide batzuk hartu zituelako. Ideia honen barruan sartuko liratekeen nobela bakarrak “Gran Sol”, alturako arrantzari buruzkoa, eta “Parte de una historia” lirateke, baxurako arrantzari buruzkoa.

Zer nabarmenduko zenuke Aldecoaren idazkeran, zehazki, bere prosan?

Nabarmenduko nuke bere estiloaren zuzentasun eta zehaztasuna eta metaforen kalitatea, arrantza-ontziaren inguruan hegaka dabilzan hegaztiei buruz ari delarik “guztiak kazola batean sartu zirela”³ esaten duenean bezala. Metafora ederra da hori.

Aldecoa zer da, nobelagile baino ipuingile hobea?

Ipuingile hobea, dudarik gabe. Ipuingintzan Aldecoa espainiar literaturako handietako bat da eta hemeretzigarren mende espainiarreko Clarín eta Pardo Bazán bezalako ipuingileekin lot liteke. Nobelista gisa estilo bikaina du eta bere nobelak onak dira, baina ez dut uste espainiar nobelagintzako onena direnik.

Zein da zure nobela gustukoena? Zergatik?

Nire nobela gogokoena “Parte de una historia” da daukan esanahi aberastasunagatik eta bere traman tartekatzen dituen konplexutasun eta soiltasunagatik. Uste dut non edo non nobela hau Hemingway-ren “Zaharra eta itsasoa”rekin edo Henrich Böll-en “Pailazo baten iritziak”ekin konparatu izan dudala.

Zein dira zure ipuin gogoenak?

Gogoken ditudan ipuinetako bi “Un corazón humilde y fatigado” eta “Los pozos” dira. Lehenengoa gaiagatik maite dut, gerra bizi izan duen ume baten ikuspuntua ematen baita. “Los pozos” toreatzaile baten bizitzako egun bat kontatzen duen testua da. Niri ez, baina Aldecoari asko gustatzen zitzaizkion zezenak.

Oharrak

¹ Euskaraz, jatorrizko elkarrizketan.

² Juventud Obrera Católica, Juventud Estudiantil Católica eta Juventud Agraria Rural Católica, hurrenez urren.

³ “Todas cupieron en una cazuela”, jatorrizkoan.

EUSKAL-NOBELAREN GIZARTE- KONDAIRAREN OINHARRIAK

1. Sarrera

1.1. Hemen, hitzaldi honetan aurkezten dugun lana, orain egiten ari garen azterketa sakon eta sistematikoago baten lehenbiziko ondorio gisa eman nahi dugu. Ikerketa orokor honen izenburua, behin behingoz, “Euskal-nobelaren gizarte-kondaira” litzateke.

Izenburu orokor hori zehazten baldin badugu, euskal-nobelaren gizarte-kondairako oinharriei buruz mintzatzean, helburu konkretu batekin egiten dugu, noski. Honako azterketa edo hitzaldi honetan nahi duguna, hauxe da, alegia: euskal-nobelaren prozesu gizarte-literarioa azpimarratu, bere lerro edo norabide orokor eta ezinbestekoak erakutsiaz; euskal-nobelaren ardatzak izango dira, noski, hemen azaltzen saiatuko garena; haien gainean, euskal-nobelagintzaren azterketaren oinharriak jar ditzakegu, ulergarri egin nahi baldin badugu ez bakarrik nobelari, nobela edo, batez ere, nobela-aldi bakoitza, baizik eta euskal-nobelaren eboluzio-lege historiko eta sozialak.

Hortaz, nabaritu behar da hemengo hipotesi edo proposamenak badutela, literaturazko edozein azterketari dagokion balio probisionalak ez ezik, lehenbiziko hurbiltzearena ere bai. Ikerketa orokorraren textuinguruak hemengo proposamenak baieztatuko ditu, edo bestela, zuzentzera behartuko gaitu.

1.2. Euskal-nobelaren azterketa saiatzekotan, gogora datorkigun lehenengo arazoa hauxe da: euskal-nobelaren gutzitiko bereiztasuna, beste literaturen nobelistikaren aldean; eta konparaketa

horri jarraitzen baldin bagatzaizkio, badirudi euskal-nobela, bai kopuruz, bai kalitatez, besteak baino txarrago dela esan beharko genukela. Datu batzuk lehenbiziko ikuspegi hori egiztatzten bide dute, hain zuzen. Esate baterako:

1.2.1. Gaurdaino argitaratu diren euskal-nobela guztiak ez dira beste literaturetan nobelaririk handienetako batek bakarrak idatzi duen adina: adibidez, Galdós, Baroja, Balzac, Dickens, Tolstoi.... hauetako edozeinek adina. Eta, zer esan, konparaketa hori kalitate-mailan ezarriko bagenu?

1.2.2. Europako literatur nagusienei dagokienez, hemeretzi-garren mendea da nobelarena, batez ere; errealismoak eta naturalismoak, mundu-ikuskerara postromantiko eta burgesaren literatur adierazpen direnez, literatur historian sekula agertu ez den nobelen eta nobelarien loraldi mirezgarria sorrerazi dute¹.

Euskaraz, berriz, ez dugu nobelarik, praktikoki, hogeigarren mende arte.

1.2.3. Mende honetako lehenbiziko hamarraldietan, eta zehazkiroago, 1920, eta 1930 artean, gutxi gora behera, ezar dezakegu nobela modernoaren iraultza delakoa; iraultza honen bidez, mundu semantiko berriak sartzen dira nobelan –adibidez, kontzientzia, edo Freudek aurkitutako inkonzientea, amets-mundua, absurdua, eta abar–; baina, batez ere, kontatzeko teknikak eraberritzen dira erabat: ikuspegia edo ikuspuntu narratiboa, barne bakar hizketa, behaviorismoa, eta abar. Joyce eta Proust, Virginia Woolf eta Faulkner, Robert Musil eta Italo Svevo izan daitezke, Europako literaturarik nagusienetan, nobela modernoaren bide berriak erakusten dizkigutenak².

Nobela horien berriztapenak, oster, ez dira euskal-nobelagintzan sartzen egungo eguneraino. Modernotasunaren ezinukaturzko usaia, bai gaiaz, bai eta teknikaz, daraman lehenbiziko euskal-nobela, Ramon Saizarbitoriaren lehenengo nobela da, hain zuzen, *Egunero hasten delako*, 1969.an argitaratua³.

1.2.4. Literatura eta gizartearen arteko harremanak, edozein literatur-motan baino nabariagoki agertzen dira nobelan⁴. Horregatik, eta joan den mendeko errealdismotik hasita, nobela gero eta gehiago azaltzen zaigu bera sortzen den mundu eta gizarte dokunturik sakon eta osoenetako bat; ezin daiteke uker hemezgarrengo Madrid'a Galdos'en nobelarik gabe; era berean, oso beharrezko dugu Balzac nobelaria Restaurazioaren pean Frantziako gizarte-bizitza ongi ezagutzeko; edo Ingalaterran "victoria aldi" delakoaren zenbait alderdi ezagut dezakegu Dickens'en nobelaren bidez.

Hala ere, nekez esan genezake euskal-nobelak, bere ehun edo urtetako bizitzan zehar, euskal-herriaren aldi honetako egoera, gertakizunak eta gora-beherak adierazten dituenik, alde-aldera izanda ere⁵.

1.2.5. Aipa dezagun azkenik, nobelaren historia eta soziologia gaur egun aztertzen dutenek nobela-mota eta gizarte-maila burgesaren arteko harremanak azpimarratu ohi dituztela. Ez dugu horrekin esan nahi nobela, literatur-egitura denez, gizarte-maila batetara joaz zeharo azal daitekeenik; baina, nobelaren sortzeak eta desarroiluak, literatura eta denbora ezberdinetan, egiazko analojiak ditu burgesiaren sorrera eta etorbidearekin. Are gehiago, nobelak adieraziko dizkigu literatur mailan gizarte burgesaren individuo eta munduaren arteko harreman problematikoak⁶.

Euskal-nobelaren eta Euskal-Herriaren ibilbideak, hasieran batera doazela badirudite, oso topa-puntu gutxi dituzte beren hondoko desarroiluan.

1.2.6. Hemen idarokitzen ari garen euskal eta erdal-nobelaren konparaketan, euskal eta erdal nobela puntu batean datoz bat eta horrenbestez bereizgarri bat dute elkarrekin –eta beste literatura guztiekin– batera, alegia, gainerako moten aldean, beranduago sortu izana⁷.

Euskal-literaturan ere, nobela, beste motak baino askoz beranduago sortzen da; beste literaturen nobela baino beranduago

ere bai; esan genezake, beraz, euskal-nobela gaurkoa dela, mende honetakoa, alegia.

Nobelak ez ditu erroak gure aitzinako eta herriko literaturan, olerkiak bezala; eta, nolazpait, inon ere errorik ez duela esango genuke, eta, areago, gaurdaino behintzat, ez duela gure literatur-gizarte-egoeran sartzeko modua aurkitu.

1.3. Halaz guztiz, nahiz eta sartaldeko literaturen barrutian euskal-nobelak beste nobelarekin zer ikusirik eta batean duten bereizgarriarik ez izan, beste literatur-motak elkarren artean baino gutxiago noski, bada euskal-nobelistika bat, euskaraz idatzitako textu-multzo bat, bere egiturazko eta adierazko ezaugarriak direla bide, gaurko literatur-teorian nobela izena har dezaketen eta hartu ohi duten textuak, alegia⁸.

Eta textu horiek, nahiz eta denbora bereko erdal-nobelarekin desberdintasun asko izan, euskal-nobelistika bat osatzen dute eta berak diren direnean azter ditzakegu eta aztertu behar ditugu.

Azterketa honetan, ordea, euskal-nobelaren gizarte-kondairaz edo historiaz ari gara. Zergaitik?

Lehenik, literatur-mota bat aztertzeke, bere maila historikoa kontutan hartu behar da, literatura ez baita textu autonomo zenbait elkarren ondoan pilatzea eta metatzea soil-soilik, baizik beren arteko elkar-harremanak dituzten textuen eboluzio, aurrerabide, aldakuntza eta jarraipena⁹.

Horregatik, euskal-nobelaren azterketak behar duena hau da, noski: nobelariak, nobelak edo nobela-giroak sinkronikoki aztertzeaz gainera, euskal-nobelaren sistema, eta sistema horren azalpena eta adierazpena ematen diguten legeak, alegia, euskal-nobelaren historia finkatzea.

Horrezaz gain, “gizarte-historia” deitzen dugu, ez “soziologia” soil-soilki. Gure azterketa literaturari, literatura den neurrian, egokitu nahi zaio; lan literarioa, ez soziologikoa, egitea dugu helburua, nahiz eta literatur-textua bere gizarte-textuinguruan begiratu behar izan; baina ez literatura bere osagaien artean gezatzeko.

Euskal-nobelaren ezaugarririk garrantzitsuenetako bat, erdaraz “atipicidad” deritzana da, hain zuzen, beste literaturen nobelarekin ezin konparatzea.

Ezin dezakegu euskal-nobela azter, espainolezko edo frantsesezko nobelagintzatik abiada harturik; literario izan arren, oso sistema desberdinak dira; alegia, beren autonomia duten eta lege bereziei dagozkien sistemak.

Euskal-nobela bere baitatik eta barrendik aztertu behar da. Baina ez bakarka, sistema handi eta orokorragoen textuinguruan baizik. Sistema horiek dira, bereziki, sozio-kulturala eta sozio-linguistikoa.

Edozein literaturatan gertatzen den bezala, euskal-literatura herriaren gizarte-praxisen barruan sortzen da, eta gizartearen bi-tartekotasunari azpiratua edo menderatua dago; baina, gure kasuan, euskal-literaturaren egoera eta aurrerapena ulertzeko, euskararen gizarte-egoera oso garrantzi handiko dugu. Izan ere, ezin ahaz dezakegu euskal-literatura gehienetan hizkuntza indartzeko eta zabaltzeko sortu dela; askotan, euskal-textu askoren sorbidea eta helburua linguistikoa da, literarioa baino askoz gehiago. Eta elementu hori gogoan eduki beharko dugu, euskal-literaturaren historia literarioa (hitz hori azpimarratuko nuke nik), egin nahi baldin badugu.

2. Nobela euskal-literaturaren historian zehar

2.1. Oinharri orokor batzuk

2.1.1. EUSKAL NOBELAREN BERANKORTASUNA

Edozein literaturatan, nobela mota edo tankera berankortzat hartu ohi da, beste literatur-moten aldean: olerkia, epopeia, antzerkia.

Greziako nobela, Kristoz goiti lehenengo mende eta Kristoz beheiti laugarren mendearen artean agertzen da eta azken tokia

betetzen du Greziako literatur-moten errenkada historikoan. Are gehiago, Homeroren poema famatuena eta lehenbiziko nobelen artean zazpi mendetako epe luzea dago.

Erdi Aroko literaturari dagokionez, hamarraldi batzuen tartea dago “cantares de gesta” direlakoan eta lehenengo nobela kortes eta kaballeskaren artean¹⁰.

Beste aldetik, eta nahiz *Don Quijote* eta nobela pikaeska nobela moder-noaren hasiera edo sorburua bezala aipatu, nobelaren desaroilurik eta gailurrik gorena, burgesiarenarekin batean dator, hemeretzigarren mendean.

Euskal-literaturaren bereizgarririk garrantzitsuenetako bat, beste literaturen aldean, bere berankortasuna baldin bada, idatzitako literaturari dagokionez behintzat, berankortasun hori oso apartekoa dugu nobelaren mailan.

Beste literatur-motetan, baditugu goiz xamar, oso idazlan garrantzitsu batzuk; adibidez, Dechepareren olerkiak, hamaseigarren mende-erdian, edo, prosa aszetikoaren mailan, Axularren *Gero* famatua, hurrengo mendean; nobela, berriz, gaurkoa dugula esan dezakegu, egitan.

Hona hemen baiezen hori frogatzeko zifra batzu¹¹.

Gaurdaino argitaratutako hirurogei eta hamabi nobeletatik, gutxi gora behera, hirurogei eta zazpi hogeigarren mendean argitaratu dira. Hauetatik, berrogei eta hamabost gerra ondoan idatzi eta argitaratu direlarik¹².

Hasieratik Txillardegiren lehenengo nobelaren agerpen-urteraino, 1957 urtean, hogeitau eta hiru nobela agertu dira; urte honetatik gaurdaino, berrogei eta bederatzi; alegia, aldi askoz txikiago batean, nobelen bi halako baino gehiagoko kopurua dugu.

Hirurogei eta hamabi nobela horiek, berrogei eta hiru nobelarik eginak ditugu; horien arteko hogeitau eta hamaikak nobela bakar bat idatzi dute; beste aldetik, hogeitau eta zortzi bizi dira gaur; alegia, denbora guztietako euskal-nobelarien ehunetik hirurogei eta bost.

Zifra horiek ikusiz gero, pentsa dezakegu euskal-nobelaren ezin-ukatuzko akats eta hutsuneak bere sorrera berriagatik azal daitezkeela nolazpait.

Euskal-nobelaren berankortasun hori azaltzeko eta bere arazoak argitzeko, oso on litzateke euskal-nobelari begirada bat ematea, ez euskal-literaturaren textuinguruan bakarrik, beste sardaldeko literaturaren nobelaren jarraipen eta egoera ere hartzen dugularik baizik

Ibon Sarasolak, bere, *Historia social de la literatura vasca* azterketaren “Apendice” batean dioenez, 1545, –Dechepareren liburuaren agerpena– eta 1879 artean, ehun eta bat euskal-liburu argitaratu ziren; horietatik, lau bakarrik har daitezke literarioztat, Sarasolaren ustez. Horrek ez du esan nahi noski gainerako liburuek balio literariorik ez dutenik; baina, horien idazteko eta argitaratzeko asmo eta helburua ezta literario izan, erlijioso baizik, gehienetan¹³.

Euskal literaturaren kasuan, jakin behar dugu, horretarako zenbait aztarren delarik, textu batzuk galdu egin direla¹⁴; baina, nolana ere, eta gaurdaino heldu diren nahiz ez diren textuen bidez, atera dezakegu argi eta garbi aldi luze horretan euskarazko literatur-motak izan direla olerkia, lirika eta epika (romantzeak eta “cantares de gesta” direlakoak), eta antzerkia, behinere ez nobela, *Peru Abarca* izan ezik; eta textu hori ere, 1802.an idazten bada ere, ezta 1881 arte argitaratzen.

Bide batez, nobelaren desarroilu modernoa hemezortzi eta hemeretzigarren mendeetan zehar, ezin azal daiteke, zenbait elementu extra-literarioen textuinguruan ezarri gabe, elementu horiek nobela sortze eta irakurtzerakoan erabateko eragina dutelarik; esate baterako, irakurlego berri baten erakunde edo antolapena, argitaraindustria eta liburu-merkatu baten sorrera eta, nobelarako oso garrantzi handiko beste elementu bat, kazetaritzaren agerpena; txandakako nobela edo, erdaraz, “novela por entregas”, deitu ohi den nobela hori ez daiteke uler albistari eta aldizkarietatik kanpo.

Gizarte-bitartekotasun horiek gogoan harturik, garbiro azaltzen da Frantzia, Ingalaterra edo Espainiako nobelaren desarroilua; horiek baitute literatur textuaren, behar bada, nobelaren sorrera baldintzatzen¹⁵.

Euskal literaturaren egoera oso desberdina dugu. Beste literaturetan nobelaren desarroiluari laguntzen dioten gizarte-baldintza horiek, gure artean agertzen hasi dira, bakanka bada ere, hemeretzigarren mende-bukaeran; aldi honetan euskararen zabalkundea indartzen ari da eta euskarari edo euskal-kulturari buruzko albistari eta aldizkariak ere giro honetan bultzada berria hartzen dute.

Esate baterako, *Peru Abarcaren* kasua aipa dezakegu. Mogel'ek idatzi zuenez geroztik, 1802 urtetik, Zarautzko prantziskotarren prailletxean gorderik argitara gabe, gelditu zen; lehenbizi zatika hasi ziren argitaratzen *Beti bat* zeritzan Bilboko egunkari karlistan, 1880.an; *Euskalzale* albistariak eraturako sariketa batean, Agirrerren *Auñemendiko lorea* lehenbiziko nobelak merezi zuen saria.

Orduarte idatzitako euskal literatura, textu erlijiosoz –sermoiaz, kateximaz, meditazioz, jardunaldi aszetikoz...– osatua zegoen, olerki-textu batzuk izan ezik: Dechepare, Oihenart...; orain, beste mota berri bati idekitzen hasten zaio, hain zuzen, nobelari.

Baina nobelak ez ditu, olerkiaren antzera, bere erroak aitzinako literatura herrikoi batean; kanpotik etxeratutakoa eta arrotza dugu benetan nobela euskal literaturan; arrazoi honek ere azal dezake, nere ustez, haren berankortasuna.

2.1.2. EUSKAL NOBELAREN SORRERA

Lehenbiziko euskal nobelen sorrerari bide ematen dioten gorabehera gizarte-literarioak, hemeretzigarren mende buruan Euskalherrian sortu zen egoeran eta hortik biztu zen euskal kontzientzi berri baten argitan begiratu behar ditugu, noski.

Bigarren karlisten gerrak eta ondoko euskal-foru-askatasunen porrokatzeak agerrarazten du, atzera bultzada gisa bezala, eskabidez betetako oso mugimendu indartsua, autonomiaren edo burujabetasunaren alde; mugimendu horrek ondorio zuzen eta garrantzitsuak dakartza kultura eta literaturaren barrutian.

Kultur-elkarteak, aldizkariak, lorejokuak eta sariketak aipa genitzake euskal kontzientzia berri hori hobeki adierazten duten garai honetako ekintzen artean.

Kontzientzia honek hizkuntza eta haren zabalkundea herri-nortasunaren ezaugarririk jatorri eta erabatekoena bezala hartzen ditu.

Horretaz, joan den mende-buruan sortzen den euskal berpizkunde horrek zuzenki ukitzen eta eragiten dio literaturari.

Hona hemen horri buruz Mitxelenak dioena:

“Entre nosotros hay que situar en el último decenio del siglo pasado las primeras señales manifiestas de la aparición de un espíritu nuevo –prefigurado ya en unos cuantos precursores– que había de transformar en muchos aspectos las características de la literatura. Ya no es la poesía el único género cultivado desinteresadamente; desaparece el antiguo predominio de las obras de edificación y formación religiosa, aunque desde luego el fondo de todo lo que se escribe sigue siendo estrictamente católico; se trata con empeño de buscar a la lengua nuevos campos de manifestación, de cultivar los que estaban sin cultivo”¹⁶.

Kultur-textuinguru honetan, bi elementu dira, nere ustez, euskal nobelaren sorrerarentzat erabatekoenak, alegia: irakurlego berri baten erakundea, eta literaturaren kultur eta gizarte-egoera edo estatuto berria.

Urte horietan Euskalherrian sortutako euskararen zabalkundeak, literaturaren indartzeak eta albistari eta aldizkariaren agerpenak irakurlego berria sorrerazten dute; eta irakurlego hau, daitekeena edo potentziala bada ere, literaturaren irakurle da, zinez, hitzaren zentzu modernoan.

Aurreko garaian, euskal irakurlea, kristau eta fededun zenez ikusia bait zegoen; haren arimaren probetxurako idatzi ohi ziren kateximak, eta sermoiak, meditazioak eta jardunaldi aszetikoak; geroko irakurlea, oster, euskaldun denez ikusia izaten hasten da; eta euskalduntasun hori indartzeko eta adierazgai egiteko, euskalduntasunaren mamian, alegia, hizkuntzan murgildu behar da;

hemendik sortzen diren textu berriak, literatura dei ditzakegu, zentzu modernoago batean; hitz batez esateko, irakurle berri horri eskaintzen eta ematen zaiona, literatura hutsa da, gaurko zentzuan; hortaz, textu horiek ez dira aurreko textu erlijiosoak bezain didaktiko ez ta gutxiago ere, hitz batez, askoz neutroagoak dira.

Gohian aipatutako bigarren elementua hauxe da, alegia: urte horietan literatura eta literatur-eginkizuna kultur-egoera edo estatuto berri bat izaten hasten da euskal gizartean.

Orduarte literaturak, edo, hobeki esan, euskaraz idazteak, gehienetan, eta olerkari batzuk izan ezik, bere funtsezko arrazoi eta zurbidea helburu ez literarioetan, batez ere, ez linguistikoetan, aurkitu ohi zuten, alegia, Elizaren eta apaizen erlijio-ekintzan.

Hemendik aurrera, euskara idatziak, zinez literario dei dezakegun izaera eta egoera berria izango du; jeneralki onhartutako literatur-motei dagozkien textuak gero eta gehiago baititugu¹⁷.

Baina, argiro esan behar da euskal literaturaren sorrera berria euskararen helburuei eta inguruko bertatik bertako beharrei azpiratu eta menderatua dagoela oraindik. Literatura hizkuntzaren zerbitzari edo antzeko zerbait da, eta horrenbestez bere autonomia formala eta semantikoa ahuldu egiten da, bere izaera espezifikoki literarioa galtzen duelarik¹⁸.

Euskal idazkera gero eta literarioago bilakatzen ari da irakurle berrien izaerak eta existentziak bultzaturik; bultzada hori bi literatur-alderditan nabari daiteke, alegia, alde batetik, aitzinatik erabilitako moten desaroiluan, esate baterako, olerkian; beste aldetik, mota berrien sortzean; hemen ezarri behar dugu euskal nobelaren sorrera.

Lehenbiziko nobelariak beren textuei ematen dieten izenak berak egiztatzan bide du azalpen edo interpretapen hori. “Irakurgaia” deritzo Txomin Agirreren hiru nobelei; “irakurgeya” deitzen die Etxeitak, berak idatzi zituen bi nobelei, eta Anabitarte izen hori erabiltzen jarraitzen da, azken nobelan ere, alegia, 1958. an idatzitako *Poli* nobelan¹⁹.

Euskal irakurleak bereganatu, ugaldtu eta gehitu nahi baldin baditu, liburu erlijioso eta zientifikoaren gehiegizko didaktismo-

tik askatutako irakur-tresna batzu, hain zuzen, irakurgaiak jarri beharko ditu idazleak haien eskuetan²⁰. Helburu honen on beharrez euskal idazleak sortutako textuak “nobelak” dei ditzakegu, haien ezaugarri formal eta semantikoz. Egileek berek textu horiek “irakurgaia” izen arrunt eta beren garaikoagoaz izendatu ohi dituzte.

Esan dezakegu, hortaz, beste literaturetan hemezortzigarren mendeko azken urte edo hemeretzigarren lehenbiziko urteez geroztik normala izan zena, euskal literaturan hemeretzigarren mende-buruan eta hogeigarrenaren hasieran hasten dela gertatzen: gizarte eta kultur gorabehera berriek, alegia, burgesiaren bultzadak, kazetaritzaren desarroiluak, alfabetatzearen ugartzeak, irakurleko berria sorrerazten dute; irakurleko hori, nobelen irakurle da, funtsean.

2.1.3. “PERU ABARCA”, AITZINDARI

Euskal nobelaren sorrera hemeretzigarren mendearan bukaerara ezartzen dugula eta, *Peru Abarca* nobela denik ukatu nahi al dugu horrenbestez?

Lehenik, argi esan behar da gaurko Poetikan literatur-mota historiko eta deskriptibo den zerbait baizik ez dela; beste aldetik, nobela da, hain zuzen, literatur-motarik mugagaitzena eta mugikorrena, zalantzarik gabe²¹. Horrek esan nahi du zentzugabe litzatekeela textu bat mota bati ala besteri dagokion teorikoki eta “aprioristikoki” eztabaidatu eta finkatu nahi izatea.

Dena dela, ezta inola ere garrantzizgabea *Peru Abarca* zinez eta benetan nobelatzen har daitekeen ala ez erabakitzea; hala balitz, euskal nobelaren sorrera ehun urte edo gorago ezarri beharko baikenuke, guk orain arte esan dugunaren aurka.

Peru Abarca’z Mitxelenak honela dio:

“En cierto modo es, en forma dialogada, el primer conato de novela en vascuence”²².

Eta *Euskalzaile* aldizkarian, 1899 urteko nobelaren argitaraldian, Azkue honela rrintzo zaigu, hitz-aurre ttipi baten hasieran:

“Irakurgei izena, osoz oso ez arren, ondo etorkionik, *Peru Abarca* izan ezik, ez egoan, oraintsuarte beintzat, beste liburu-rik”²³.

Mogel’ek berak elkarrizketa bezala aurkeztu zuen liburua, azpituluan “autua” izena ezarri zionean: “Euskaldun baserritar bakarti baten eta Maisu Juan izeneko bizargin kaletar baten arteko autuak”.

Egitan, *Peru Abarca*’k badu lauki edo marko narratibo bat, ttipi ttipia bada ere; eta lauki horretan oinharriturik daude liburua- ren izaera didaktikoa antolatzen duten bi elementu nagusiak; alegia, ohiturazko ikuskizunak –baserriko bizitza, burni-olako eta ehundegiko lanaren deskribapena –eta gogarte edo burutapen didaktiko eta doktrinalak– baserriko bizitzaren gorespena, euskararen laudorio eta apolojia.

Aztertzaile batzuk, Peru baserritarrarengan Rousseau’k, bere novela *Emilion* eman zuen “buensalvaje” delako pertsonaiaren euskal irudia ikusi nahi izan dute; nere ustez, Peruren naturalismoa ez da Ilustrazioneko ideologiatik iragazi; Basarte da, noski, Peru baserritarra hazi eta hezi duen unibertsitate bakarra; Mogel’ek asmatutako pertsonaia ez da Rousseau’renaren anaia ttipia, baizik ehun edo urte beranduago euskal ohiturazko nobelaren mundu idilikoan emeki biziko diren baserritarren anaia zaharrena²⁴.

Koordenada narratiboak –tokia eta denbora, ekintza eta pertsonaiak– autuen edo elkarrizketen beharrei eta liburua- ren helburu ohiturazko eta didaktikoei menperaturik daude, eta berez ez dira funtsezkoak.

Tokia, ohiturazko ikuskizunaren oinharri hutsa besterik ez da; eta horren antzeko zerbait esan daiteke denboraz; honen iga- rotzea egiantzik-gabe gertatzen da batzutan, adibidez, lehenengo kapitulu edo autuan. Ekintzarik ia ez dugu, eta horregatik per- tsonaiak, ekintzaren, enuntziatuaren, gertariaren sujeto, eragile bezala baino, enuntziapenaren, narrazioaren sujeto bezala askoz

gehiago agertzen dira; askotan, aitzakia baizik ez dira, elkarrizketa sorrerazteko eta egileari dagozkion gaietara bideratzeko; guztiz argi eta garbi agertzen da hori “prantzes” eta “kiputzaren” kasuan, bostkarren autuan; eta, apaizarenean, seigarrenean ere argi xamar²⁵.

Hortaz, *Peru Abarcak*, geroko nobelari batzuk –Galdos’ek, Baroja’k...– jardungo duten elkarrizketaren bidez egindako nobela baino, Erdi Aroko kontaketak, “relatos enmarcados” direlakoak, gogoratzen dizkigu; edo, hain urrutira ez joateko, Pizkundé’ko elkarrizketak²⁶.

Erabat, nik uste dut ez duela *Peru Abarcak* ezaugarri narratiborik euskal nobelaren sorrera hartan ezartzeko; hori ehun urte geroago gertatuko da, gutxi gora behera.

Dena dela, Mogel’en liburuak, bai egituragatik, baita ere gaiaren mailan aurkezten dizkigun elementu batzuegatik, baserribizitzaren gorespenetan oinarrituriko geroko ohiturazko-nobela-rekin zer ikusi eta antz handiago du, egilearen beste idazlan linguistikiko eta bereziki erlijiosoekin baino. Eta horrek azal dezake, nolazpait behintzat, zergatik, iraun zuen argitaratu gabe ia larogei urtetan zehar²⁷.

Liburu bezala argitaratzen denean, lehenik, 1881 urtean gero, 1899.an, Juan Carlos Cortazar’ek egindako itzulpen batekin, euskal nobelaren sorrerari bidea egingo zioten gizarte-baldintza berriak –euskal kulturaren berpiztea, kazetaritzaren desarroilua, publiko irakurle baten jaiotza...– mamitzen eta oratzen dira; ez da, beraz, arritzekoa liburuaren kidekoek, adibidez, Azkuek, gohian aipatutako hitz-aurrean, *Peru Abarca* nobela deitu, eta, baldintza batzuekin bada ere, lehenbiziko euskal nobelatza onhartu izana.

2.2. *Euskal nobela: Desarroilu eta aldiak*

Euskal nobelaren historia oso laburra dugu, ehun edo urtetakoa, hain zuzen. Halaz guztiz, nabari dago Txomin Agirre eta gaurko nobelaren artean, literaturaren historiagileak azaldu beharko duen garrantzi handiko tarte narratiboa dagoela. *Auñemen-*

diko lorea eta *Ene Jesus* edo *Haizeaz bestaldetik* nobelak bereizten dituzten larogei bat urteek erabateko bereiztasunak erakusten dizkigute nobela asmatzeko eta taxutzeko eran; bereiztasun horiek literaturari eta baita ere errealtateari begiratzeko oso era ezberdinak azpiramarratzen dituzte.

Behar bada, ehun edo urtetako historia labur honetan aurrerabide handia eta benetako aldaketak bait daude; eta ez egiturari eta konta-teknikari dagozkien arazoan mailan, bakarrik, nobelak nahiz inplizitoki nahiz explizitoki erakusten duen mundu-ikuskeraren mailan ere bai.

Oso beharrezko dugu, hortaz, eboluzio honen legeak eta horiei darien nobela-sistema ezberdinen aldiak argitan ipintzen saiatzea. Literaturaren aldizkatze, edo, erdaraz esana, “periodización literaria” ezinbesteko zerbait bezala agertzen zaigu, literaturaren edo mota baten historia egin nahi baldin badugu; baina aldizkatze hori nolako azterbidez antolatu edo oinarritu behar da?

Aski nabari dago, eta gaurko literatur-teorilariak guztiz ados daude horretaz, aldizkatze literarioa literarioki, alegia, arazo literarioetan oinarritu behar dela; ezin dakizkioke historia politiko edo sozialaren aldizkatze ereduak literatur-historiari mekaniko-ki erants; baina, era berean, ezin daitezke ahaz eginkizun literarioari dagozkion gizarte-bitartekotasunak eta batez ere elementu gizarte-politikoaren eta arazo literarioaren arteko eragipenak; alegia, literaturaren sorrera, zabalkundea eta baliapena nahiz konsumoa gizarte-historiaren barnean gertatzen dira²⁸.

Literatura gizonaren gizarte-praxiaren partaide da eta giza-praxiaren bitartekotasun historikoei azpiratua dago; baina ez gizarte-harremanen errainu superrestruktural hutsa bezala; artearen eta literaturaren autonomia baieztatu behar da, autonomia hori erlatiboa bada ere²⁹.

Euskal nobelaren arazoan oso nabari agertzen zaigu ezin dakizkiokeela euskal nobelari erants beste literaturetan hogeigarren mendean zehar nobelaren aurrerabide eta desarroilua azal ditzazketen ereduak. Euskal nobela gaurko Europako eta Ameriketako nobelagintzatik guztiz urruti sortzen eta hazten da. Ia gaurdaino

ez dira euskal nobelariak, Txillardegi gai edo tematika mailan, Saizarbitoria teknika narratiboarenean ere bai, beste nobelagintzen era eta arazoen kideko izaten hasten³⁰.

Hortaz, euskal nobelaren historia bere baitatik eta barrendik egin behar dugu eta ez erdal nobelagintza eredutzat hartzen dugularik; nolabait ere, beste gaurko nobelagintzarako erreferentziek eta bide batez harekin berdintzeak eta erkatzeak lagun gaitzateke euskal nobelaren berezitasuna agerian ipintzen alde batetik eta bestetik berezitasun hori azal dezaketen egitura adierazgarriak ikertzera bortxatu eta bultzatuko gaituzte.

2.2.1. EUSKAL NOBELAREN “PREHISTORIA”

Lehentxeago esan dugunez, joan den mendearen azken hamarraldietan ezarri behar dugu foruen eta askatasunaren galtzeari darion mugimendu politiko eta kulturala. Horretan dago, nere ustez, euskal nobelaren sorrera eratzen duen textuingurua. Zehazkiro azpimarra gentzake urte eta datu batzuk:

— 1870: Joan Bautista Daskonagerre'ren *Atheka gaitzeko oihartzunak* kontaketa agerpena.

Agian, Daskonagerre'k berak hiru urte lehenago frantsesetik idatzitako *Les echos du pas de Roland* liburuaren euskal itzulpena baizik ez da; euskal textua talde batek, ez Daskonagerre'k berak bakarrik, egindako itzulpena da³¹.

—1880: *Beti bat* zeritzan Bilbo'ko aldizkari karlistan, ordu-raino argitara-gabeko *Peru Abarca* zatika agertzen da³².

—1888: *Piarres Adame, saratarraren zenbait historio* kontakizunaren argitarapena. Egilea, Joan Batista Elissanburu, Saran jaioa, eta gaztetandik aski olerkari ona; kontaketa laburra (novela corta) dugu *Piarres Adame* hori eta gainera bukatu gabekoa; protagonistaren herriz-herriz eta bidez-bideko ibilkerak eta gertaerak kontatzen zaizkigu han. Bere

berrogei eta zortzi orrialdeek narradore trebea erakusten digute; baina, Veyrin'en iritziak, alegia, *Piarres Adame* heme-retzigarren mendeko euskal literaturaren lan nagusia dela gehiegizko dirudi³³.

—1893: Bilbon agertzen da Azkue'ren *Bein da betiko* kontaketa.

Honeraino aipatutako titulu eta idazleetatik, inor ez da, nere ustez, erabatekoa euskal nobelaren hasiera eta sorrera finkatzerakoan, konbentzionalki badaere.

Daskonagerre, idazle baino lege-gizon eta politikariago noski, hala-beharrez sartzen da literaturan, zaletasun literariogatik baino areago hurkoaren maitasun edo filantropiagatik, alegia, “Ganis de Macaya” izen-goitizko Joan Anchordoqui kontrabandista famatuari laguntzeagatik, nahiz eta hamar urte geroago bidai-liburu bat argitaratu, frantsesez ere bai, Gaskoña aldeko ibilbide, eusko abesti, euskal esaldi eta abar ezagutzera emanaz³⁴.

Elissanburu'k, olerkari berez, *Piarres Adameren* orrialdeak besterik ez ditu hitz lauz idatzi.

Azkeri dagokionez, 1918.an, nobelari ekiten zaio berriro *Ar-di galdua* nobela laburrarekin, edo hobeto esan, eskutitz-egiturazko kontaketa on-eragile batekin; idazleak berak “arteka-marteka egindako gertiradia” bir-titulatzen du liburutxo hori³⁵. Baina, Azkuek, kontagintzaren barrutian bi aldiz sartu ba zen ere inoiz ez zuen euskal nobelaren historiarako zerbait ardurazko egin.

Hartara, Daskonagerre, Elissanbum eta Azkue, euskal literaturan kontagintzari eta areago nobelari idekitzen ari zaizkion bide berriak kronologjikoki azpimarratzen dituzten beste horrenbeste puntu edo mementu izango lirатеke.

Nere ustez, 1897 da, aurrekoak baino hobeto, euskal nobelaren sorrera adieraz diezaigukeen urte-eguna.

Urte honetan sortzen da Bilbon hemeretzigarren mendebukaeran euskal kazetaritzak izan duen aldizkaririk garrantzitsuenetako bat, alegia, *Euskalzale* astekaria.

Urte berean, aldizkariak eraturako sariketa literario batean, Txomin Agirrerren *Auñemendiko lorea* eleberriak, edo, idazleak berak dionez, “irakurgaia”k irabazten du saria. Hurrengo urtean, aldizkariak berak argitaratzen du nobela hori.

Hortaz, *Euskalzale* aldizkariak, *Auñemendiko lorea* nobelak eta Agirre nobelariak marratzen dute, hemeretzigarren eta hogeigarren arteko mende-mugan, euskal nobelaren sorrera.

2.2.2. EUSKAL NOBELAREN LEHENENGO ALDIA: 1897-1957: OHITURAZKO NOBELAREN NAGUSITASUNA

Agirrerren lehenbiziko nobela ez da, nere iritziz, geroakoak bezain balio handiko eta adierazgarri³⁶. Eleberri historiko romantikoaren bereizgarriak hartzen ditu eta arras nabari du hemezortzi urte lehenago sortutako Navarro Villoslada'ren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* nobelarekin analogia³⁷. Dena dela, euskal nobelaren ibilbidea urratu eta irekiko duen mota ez da nobela historikoa izango, ohiturazko nobela baizik. Eta haxe da, Agirre ez ezik, nobelaren barrutian sartuko diren aldi honetako idazlerik gehienek bereziki landuko duten nobela-mota, agian.

Astirik ez dugu, ohiturazko nobela honen bereizgarri nagusiak laburki baizik aipatzeko:

- nobelak itxuratutako munduari dagokionez: baserriko edo itsas-herriko bizitza. Ez da behinere hiri-bizitza edo olalana edo fabrika bizimodurik agertzen, bilbaketaren edo irazki nahiz tramaren mami bezala ez behintzat.
- Beste mundu hori oso borroka edo konfliktu ttipien mundua dugu; eguneroko bizitzaren deskribapena maitamenezko irazki argalen gainean oinarritua dago askotan; maitamin arazo horiek zoriontasunez eta moralaren legerik ortodoxoenez askatu ohi dira beti. Bada ere, nobelaren gaia Euskal Herritik kanpora irtetzen denean, adibidez, Etxeitaren nobeletan, jaioterri minak erabakitzen du beti ere nobelaren bukaera: Euskal Herrira itzultzea.

— Mundu-ikuskerari dagokionez: herrian, nahiz baserrian, nahiz itsas-herrian, daude, berez eta izatez, euskalduntasunaren, euskal-nortasunaren sustraiak eta erroak; eta muin honen oinarria euskara eta fedea dugu, noski; eta biak batean, hestu loturik, *Auñemendiko lorea* nobela bukaeran esaten zaigunez: "...euskaldunak garala esanda beste barik ezkarala zeraetan sartuko"³⁸.

Nabari da ere honelako nobelan, alegia, ohiturazko nobelan, bere funtsezko bikoiztasuna, bilaketa errealitatearen azterketa objektibotik sortua ez delarik, aurreko tesi batetatik baizik; beraz, honek baldintzatu egiten ditu errealitate-elementuen aukera eta moldaketa.

Hortaz, nahiz ohiturazko nobelan errealitatearen irudi tinkoa agertzen den azalezko begiraldi batean, moraltasunaren zama didaktikoa darama funtsean.

— Konta-teknikei buruz, ohiturazko nobelaren bereizgarriak nagusienetako batzuk izan daitezke adibidez: kontalari guzti-jakitunaren erabilkera. Kontalari honek ez du kontaktu bakarrik egiten, bere iritziak ematen ditu eta liburuaren mezua edo moraltasuna oinarritzen eta gogortzen du ere bai.

Trama edo irazkia oso ttipi delarik, nobela estatikoa dugu, bere tankera deskriptiboagatik.

Erabat, euskal ohiturazko nobela errealismotik, adibidez, Frantzian Balzac'ekin edo Espainian Galdos'ekin hasitako nobela errealistatik baino, ohiturazko literatura romantikotik edo prerealista deritzan nobelatik hurbilago dago, nere ustez³⁹.

Pereda'ri buruz Montesinos'ek esan duen antzeko zerbait esan genezake euskal ohiturazko nobelaz: "novela idilio" dela; eta agian, Peredarekin –bere ohiturazko nobelekin, noski– beste edonorekin baino antz handiagoa erakusten digu euskal ohiturazko nobelak; ez egitura eta moldaketa-mailan bakarrik, ideolojiarenean ere bai⁴⁰.

Halaz guztiz, aipatu behar ditugu nobela honek dituen ezin-ukatuzko balioak; nagusienak aipatzekotan, biok azpimarratuko nituzke, bereziki: euskal literaturaren mota berri baten, alegia, nobelaren oinarriak jarri izana; beste aldetik, hitz-lau narratiboa sorrerazia; batzutan, adibidez, Agirrean, oraindik eredutzat har daitekeen hitz-lau narratiboa, nolazpait⁴¹.

Ohiturazko nobela horrekiko etendurak marratuko du, hain zuzen, euskal nobelaren historian barnean, aldi berri baten muga eta sorrera. Haustura hori ideoloji edo mundu-ikuskeramailan egiturakoan baino goizago gertatzen da.

Etendura hori argiro ikus daiteke, geroago erakutsiko dugun bezala, *Leturiaren egunkari ezkutua* Txillardegiren lehenbiziko nobelan. Nobela hori 1957.an argitaratu zen. Hortaz, euskal nobelaren historian, lehenbiziko aldia 1897 .tik 1957 arte doa; bere ezaugarri orokorrik nabariena, ohiturazko nobelaren nagusitasuna delarik.

* * *

Dena dela, beharrezko zaigu gerrak marratzen duen beste muga bat aldi honen barruan aipatzea; nahiz eta gerra euskal nobelaren historian eta bilba-kuntzan haustura ez izan, ez egitura mailan, ez gaiarenean ere.

Nolanahi ere, Euskadin, gerrak eta haren ondorioek isil-arazi egiten dute euskal literatura. Nobelari dagokionez, isilune horrek hamairu urte baino gehiago irauten du; hain zuzen, gerra aurreko azken nobela, *Uztaro*, Toma Agirrerena dugu, 1937.an argitaratua; gerra ondoko lehenbizikoa, Euskadin bertan, Etxaideren *Alos-Torrea*, 1950.an agertua. Etxaideren nobela labur horrek lehen aldi joanean finkatzen ditu bere erroak, ez gaiaren izaera historiko eta legendarioagatik, nobelaren azpiko mundu-ikuskeragatik baizik. Dena dela, Etxaideren kontaketa ohiturazko nobelaren harmonikoki eratutako eta grina handirik gabeko mundu

idilikoa urratzen hasten da. Argiago ikus daiteke hori *Joanak joan* deritzan, egile beraren bigarren nobelan. Gerra, esan dudanez, etendura argi bat baino, parentesi, isilaldi bat da, areago.

Gero, *Joanixio*, Joan Antonio Irazustaren nobelaren agerpenarekin Buenos Aires'en, 1946.an, aldi berri bat hasten da, urteetan ttipi eta tituluez labur. Aldi horri "herbestaldiko nobela" leritzake; baina, herbestea, gehienetan, nobela sortzen den tokia soil-soilik da, ez nobelaren gaia edo problematika. Harritzekoa da, benetan, gerrak eta haren ondorioek euskaldunentzat eta euskal herriaren bizitzarako tratamendu zuzen eta sakonik herbestaldiko nobela honetan ez izana; dena dela, honi dagokionez, J. Eizagirrearen *Ekaitzpean* nobela Irazustarena baino interesgarriagoa da, nere ustez.

Azkenik, nobela hori ohiturazko nobelaren bereizgarrietan urtzen da, nahiz eta honako honen ikuspegia aberritik urruti dagoenaren ikuspegi nostalgikoa izan.

Barruan, Euskadin bertan, ia hogeituro aldi batean, alegia, gerra-bukaeratik hasita Txillardegiren lehenbiziko nobelaren agerpeneraino, bi idazle eta hiru titulu baizik ez dugu: Jon Etxaide eta Jose Antonio Loidi; hauen garrantzia honetan datza: bi egile horiek aurreko ohiturazko nobelak behin eta berriro ibili zituen bideak mota berriei euskal nobelagintzan irekitzen saiatzen dira: polizi-nobelari, Loidi, bere *Amabost egun Urgain'en* nobelarekin⁴²; Etxaidek sorrerazten du lehenengoz euskal nobelagintzan grina bizien mundua: gorrotoa, bortizkeria, lizunkeria; baina, hondarraren hondarrean, horrek aurreko nobelaren antzekoak diren mundu-ikuskeraz eta bizi-legez dihardu funtsean.

Horregatik, Etxaideren *Joanak joan* nobela euskal nobelagintzan nolabaiteko berrikuntza bada eta era berean aurreko nobelagintzaren koordenada tematikoak astintzen baditu ere, ez da zeharo etendura⁴³.

2.2.3. EUSKAL NOBELA MODERNOAREN SORRERA (1957 HASITA...)

Etendura hori Txillardegirengan ezar dezakegu; euskal nobelaren historian “nobela modernoa” izenda dezakegun aldia harekin hasten bait da.

Agian, modernotasuna izango da, ohiturazko nobelaren tradizionaltasunaren aurrean, nortu eta aurreko nobelagintzatik bereziko duen euskal nobela berri honen ezaugarriarik orokor eta nabariena.

Euskal nobelaren modernotasun hori oinarritzen duten elementuak literarioak eta ez literarioak dira. Horietako batzuk, behar bada garrantzitsuenak, hauek izango lirateke:

Nobelarien adina bera: haien gaztetasuna⁴⁴.

Unibertsitario izatea, kasurik adierazgarrietan behintzat, adibidez, Txillardegi, Mirande, Saizarbitoria ...; erabatekoa dugu, zalantzarik gabe, elementu hori euskal nobela modernoaren talante ideologiko eta kultural berria azaltzerakoan.

Hirikoi izatea, alegia, hiriko kultur batean finkaturiko pertsonak izatea.

Europako gaurko literatura eta bereziki nobela ongi ezagutzea; eta, azkenik, behin baino gehiagotan, euskaldun-berri izateak bere garrantzia izango du, nere ustez, euskal nobelari modernoaren nobela-idazkera ulertzeko.

Baina elementu horiek, beren aldetik, urte horietako Euskadin gertatzen den egoera gizarte-politikoaren textuinguruan ezarri behar dira.

Gizarte-ikuspegi honetatik, aipatuko genituzke, lehenik, handituz doan industriapena eta haren ondorioak; kulturari dagokionez, hiriko kulturaren gero eta nagusitasun handiagoa.

Hiriko kultura honen ezaugarriarik nabarienetakoak izango lirateke, adibidez, bere sekularotasuna eta bere aniztasun ideologikoa⁴⁵.

Maila politikoan, frankismoaren aurkako borroka-modu berriek erakusten dute, ez erresistentziaren estrateji berri bat baka-

rrik, euskal nortasunaren eta euskal arazoaren pentsabide berria baizik. Gazte abertzaleen artean bereziki itsatsi den euskal konzientzi hori adierazpide politikoa aurkitzen hasten da eta euskal egoera politiko-kulturalaren alternatiba orokor bezala aurkeztuko da.

Oso beharrezkoa dugu elementu guzti horiek gogoan hartzea, euskal nobelaren bigarren aldi honetan gertatuko diren aldakuntzak eta aurrerapenak azaldu nahi baldin baditugu.

Euskal nobelaren lehenbiziko “héroe problemático”a, Leturia dugu, noski⁴⁶. Leturiaren borroka, existentziala da, Otegik bere liburuan ongi erakusten digunez⁴⁷; baina, nobelaren baitan gertatzen den borroka horrek mundu-ikuskerara ager-arazten digu, aurreko nobelak erakusten zigunaren oso ezberdina, benetan. Eta hemen datza, bereziki, Txillardegik euskal nobelan eragin duen etendura edo berrikuntza, alegia, mundu-ikuskerara maila honetan; egiturazko mailan, lehenbiziko pertsona narratiboaren erabiltzea izan ezik, Txillardegiren konta-teknikak oso tradizionalak bait ditugu⁴⁸.

Hainbestez, euskal nobelaren berriztatzea –gai eta egitura, mundu-ikuskerara eta teknika narratiboa– *Egunero hasten delako* Saizarbitoriaren lehenengo nobelarekin gertatzen da zeharo, 1969.an; lehenbiziko aldiz, euskal nobela batek modernotasunaren taju eta itxura nabaria eta ezin ukatuzko kutsua dakarkigu⁴⁹,

Argi dago orduan euskal nobelaren historiaren bigarren aldi honetan, beste bi azpialdi edo fase bereiz ditzakegula:

- a) Txillardegiren lehenbiziko nobelarekin hasten den aldia (1957-1969).
- b) Saizarbitoriaren lehenbiziko nobelarekin hasten dena (1969'tik gaurdaino).

Bi fase horiek laburki mugatu eta ezaguaraztekotan, elemento batzuk aipa genitzake: Lehenbiziko fasean (1957-1969): Nobelen eta nobelarien gehitze eta ugaritzea, aurreko aldiaren aurrean, hurrengo urteetakoa baino ttipiagoa bada ere.

Hamabi urte hauetan, hamabost nobela argitaratzen dira, hamaika nobelariak idatzitakoak; nobelari hauetatik, birek bakarrik, Anabitartek eta Etxaidek, argitaratu zuten nobelaren bat aurreko aldian. Gainerako bederatzia urte hauetan sartzen dira lehen aldiz nobelaren barrutian. Baina, hirurek bakarrik, Txillardegik, Erkiagak eta Peillenek argitaratzen dute nobela bat baino gehiago; halaz guztiz, Erkiagak hirurogei eta biaz gero eta Txillardegik hirurogei eta bederatziaz gero ez dute gehiago nobelarik idatzi, edo argitaratu, behintzat⁵⁰. Besteak, Estonba (*Izartxo*), M. Izeta (*Dirua galgarri*), S. Salaberria (*Neronek tirako nizkiri*), J. R. Zubillaga (*Lardasketa*), edo M. Itziar (*Larraundiko sendia*), literaturan halabeharrez sartu zirela dirudi, eta, beste aldetik, garrantzitsu ez diren textuekin, hain zuzen. Hauetako inork ez du, orain arte, beste saio edo intentorik berregin. Arestiri dagokionez, hirurogei eta bostean *Mundu munduan* nobela laburra argitaratu zuen; eta mota guztiak saiatu zituen; baina euskal literaturaren tzako haren erabateko garrantzia olerkian dago, nabariki.

Horretaz aparte, zehaztu behar da nobela horiek, Txillardegirenak ezik, aurreko nobelaren mundu-ikuskerara berean oinarriturik daudela, nahiz eta gehienetan ohiturazko nobelaren gaiak utzi. Oraingo honetan, oso gai ezberdinak ditugu: polizino-belatik –Izeta, Peillen–, hasi eta gerrari buruzko erreportai autobiografikoraino –Salaberria–, hiri-nobelatik –Erkiagaren bi azken nobelak– edo historikotik –Etxaideren *Gorrotoa lege* azken nobela– pasatuz.

Teknikari buruz, esan dugunez, euskal nobelak ez ditu oraindik beste nobelagintzetan sortu diren erabateko aldaketak bereganatu; Txillardegiri buruz esan dugun bezala, lehenbiziko pertsona narratiboaren erabilketa dugu, nere ustez, konta-teknikari dagokion aldaketa aipagarri bakarra.

Horregatik esan dezakegu 1969 urtea literatur-muga dela euskal nobelaren historian zehar.

Urte honetan, Txillardegi'k *Elsa Scheelen*, bere hirugarren eta oraingoz azken nobela argitaratzen du, behar bada, aurrekoen le-
rro berean, bai problematikari, bai konta-teknikari buruz.

Urte honetan bertan, euskal nobelaren geroa, era oso ezberdinaz bada ere, baldintzatuko duten bi nobelari berri agertzen dira: Ramon Saizarbitoria eta Xabier Gereño.

Euskal nobela modernoaren historiarako, Saizarbitoria dugu, zalantzarik gabe, gure nobelaririk nagusi eta erabatekoena. Gaurdaino agertutako hiru nobeletan. Europako nobela modernoaren oso ezagutzailer sakon eta argia agertzen zaigu; Saizarbitoriaren nobelak ditugu, oraingoz, euskal nobela gaurkotzeko asmorik eta ahaleginik serio eta trebeenak⁵¹.

1969.an hasten den euskal nobelaren ezaugarriak nagusienak azpimarratzekotan, honako hauek aipa genitzake:

Lehenik, nobelari eta nobelen kopuru gero eta handiagoa: 1969.tik gaurdaino, –doidoi hamar urtetako epean–, aurreko historia osoan baino nobela ugariago argitaratu dira.

Urte hauetan nobelaren barrutian sartzten diren idazle berriak hogeiren bat dira; alegia, inoiz izan diren euskal nobelari guztien erdia edo, gutxi gora behera.

Era berean, gogoan edukitzeko beste ezaugarri bat: azken euskal nobelak erabiltzen dituen nobela-moten eta gaien aberastasun eta ezberdintasun gero eta ugariagoa: nobela existentziala eta psikolojikoa, gizarte eta polizi-nobela, nobela experimentalak, e.a. Horrek erakusten digu argi eta garbi beste literaturen eta gaurko euskal nobelaren arteko doinu-kidetasuna edo sintonia gero eta handiago dela.

Ezin uka, beraz, euskal nobela gero eta autonomoago dela, lan literarioa denez. Nobelaren izatea, helburua eta zergatikoa ez da –lehen adina ez behintzat– hizkuntzari begiratuz agortzen; alegia, euskararen zabalkundea edo beste edozein didaktismo, esate baterako, euskal gogoa eta nortasuna eta euskaldunen bizitankera mamitzea eta gorpuztea, ez da lehen adina nobelaren xedea. Helburu horiek, bidezkoak izan arren, ez-literarioak direlarik, nobelaren kalitate artistikoa lardaskatu egiten dute azkenerrako gehienetan.

Zentzu horretan esan daiteke euskal nobela modernoak, begirune handiagoa diela nobelaren barneko legeei, lan literarioa

denez; hemen aurkitzen dituzte beren oinarriak nahiz experimentuaren –nobela experimentalaren–, nahiz konta-teknika modernoaren eransteak eta erabiltzeak.

Baina, diodan zehazkiroago, euskal nobela modernoa, tankerako edo egiturako ikuspegitik begiraturik, oso eremu zabalean mugitzen dela; alde batetik, banguardista edo experimentalista dei dezakegun nobela dugu; esate baterako, Saizarbitoria'ren *Ene Jesus*, Patri Urkizu'ren *Sekulorun sekulotan*, edo Bernardo Atxaga'ren *Ziutateaz*; beste aldetik, Xabier Gereño'ren nobela herrikoia, edo, hobeto esan, “popularista”; honen planteamendu tekniko eta narratiboak errazegiak dira nere ustez.

Mundu-ikuskerari dagokionez, gaurko euskal nobelaren panoramak aurreko aldian agertzen ez zen aniztasun ideolojikoak erakusten digu, alegia, gaurko euskal gizartearen egoera nabarra.

Erabat, esango genuke euskal nobelak, lantegi literarioa denez, bere burujabetasuna edo autonomia lortu duela eta askatu egin dela, gehienetan behintzat, lehengo menpetasunetik eta didaktismoetatik, nahiz linguistiko nahiz ideolojikoetatik.

Era berean, euskal nobelak, nobelari berriak direla bide, beste nobelagintzetatik urruntzen zuen tarte narratiboa gutxitu eta txikitu egin du, nolazpait esateko.

Halaz guztiz, euskal nobela ez da nere ustez oraindik gure gogoaren, gure izakeraren eta gure mitologia kolektiboaren adierazpide eta lekuko, argitsu eta poetiko aldi berean, gertatu eta bihurtu.

Horregatik, hitzaldi hau bukatzerakoan, euskal nobelaren geroari buruzko zertxobait gaineratzen, gehitzen ausartuko nintzateke.

3. Euskal nobelaren etorkizuna

Hain mehea eta nahasia den hauzia gehiegi soiltzeak eta murrizteak berekin dituan arriskuak sorbaldaratzuz ere, euskal no-

belaren historian zehar bi aldi guztiz ezberdinak gertatu direla esango nuke.

Lehenbiziko batean, euskal nobela delakoari euskaldun izatea zaio axola bereziki, eta ia batere ez edo gutxiago behintzat nobela izatea.

Bigarren aldi honetan, oster, badugu nobela, baina legezko litzaiguke era berean galdetzea: euskararen erabiltzeaz gainera, mintzo al gintezke “euskal nobelaz”, hitzaren zentzurik hertsiki eta sakonenean?

Harritzekoa badirudi ere, galdera hori egin behar dugu, nere iritziz, eta erantzuterakoan, beste nobelagintzetan gertatu dena aipatzea oso egoki litzaiguke.

Nobela, sortu ez baina, indartu behintzat, errealismo aldian indartu da eta bere nortasuna, izaera eta tankera literarioa eta errealitatea ikusteko eta erakusteko adierazpide izatea garai horretan atzeman eta eskuratu du. Gogora ditzagun lehen aipatu ditugun nobelaren historia eta egitura argitzen dituen gorabehera sozio-politikoak.

Errealismoaren esperientzian oinarriturik, jasan ahal izan du nobelak, deuseztatu gabe, hogeigarren mendearen lehen herenean bere barrutian gertatu zen iraultza sakona. Are gehiago, nobelaren amaiaz, antinobelaz, e.a., mintzatuko da zenbait jende. Baina nobela, eraso eta oldar guztiak jasan eta literatur-motarik gailena eta gorena izaten jarraitzen da gaur egun, nora ezean. Esperimentalismo eta banguardismo direlako guztien gaineratik, nobelak, sorburuarekin lotzen duen zilbor-esteari eusten dio beti; hainbestez, nobela, mitoa bezala, izan zen, den eta izan nahiko lukeen gizona eta gizonarenak kontatuz jarraitzen da, noski.

Eta gizonak, bere historia indibidual eta kolektiboa inork kontatu beharra izango duen bitartean –eta beti izango du, jakina, bestela, hil egingo litzateke, Scherezade bezala–, nobela izango da, aldez edo moldez, nobela biziko da.

Euskal nobela ez da, sartaldeko nobelagintzetan hain erabatekoa izan den errealismo-esperientziatik iragazi. Oihartzun

erromantikoak argi daramatzen nobela historikotik edo ohiturazkotik, nobela modernora pasa gara.

Jakina, ezin atzera dezakegu historia, nahiz orokorra, nahiz literarioa. Gure artean nobela, eta ez kronolojiari dagokionez bakarrik, arrotza da eta zain gutxitakoa eta errogabe xamarra oraindik gure bizitza gizarte-kulturalean, kanpotik etxeratutako mota eta gure literatur-tradizioan sustrairik gabea delako, hain zuzen; baina baita ere, nobela ez delako izan oraindik gure artean, beste literaturetan mementuren batean izan zen bezala, gure historia-
ren, gure mitolojiaren eta oroitzapen herrikoi eta kolektiboaren adierazpidea.

Baldin nobelak bere sustraia euskal nortasunean finkatu nahi badu, euskara, ezinbestekoa bada ere, ez da nahikoa izango; hizkuntzari dagokionaz gainera, eta edozein lantegi artistikotan egiturazko esperimentoari, giza-izaeraren bere-berezko problematikari, eta edonongo eta edonoizko gizonaren gorabeheri eman behar zaien tokiari uko egin gabe, nobelak, gure izaera kolektiboa agertzeko era poetikoa, historikoa baino, mitikoa, dokumentala baino areago, izan beharko du, benetan.

Hitz batean esanaz, euskal nobelaren alderik pozkarriena eta interesgarriena, bere etorkizuna da, hain zuzen.

Oharrak

- * 1981, “Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak”, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 343-368.
- ¹ Nahiz eta Ingalaterran hemezortzigarren mendeko nobela oso garrantzitsu izan. Bestalde, Cervantes’engan eta “novela picaresca” delakoan ezarri ohi da nobela modernoaren sorrera.
- ² Ik., adibidez, horri buruz, Benito Varela, *Renovación de la novela en el siglo XX*, Barcelona, Destino, 1967; R. M. Albérès, *Métamorphoses du roman*, Paris, Albin Michel, 1966; Michel Zéaffa, *La révolution romanesque*, Paris, Union Générale d’Editions, Col. 10/18, 1972.
- ³ Bai Saizarbitoria, baita ere Txillardegi ditugu euskal nobelaren eraberritzailek eraginkorrenak, nor bere garaian. Ez dezagun ahaz Txillardegi eta Saizarbitoriaren lehen nobelen artean hamabi urtetako epe luzea dugula: nobelaren arloan aldakuntza garrantzitsu batzu gertatu den epea, hain zuzen. *Egunero hasten delako* nobelari dagokionez, bigarren argitaldiaren hitzaurre gisa agertu den azterteketa ttipi batean saiatu naiz nobela honen erabateko garrantzia euskal nobelaren eraberritzerakoan erakusten.
- ⁴ Edozein literaturaz esan ba daiteke ere sozial izatea, nobelarenean, dudarik gabe, agertzen zaigu literaturaren alderdi soziala, edonon baino askoz nabariago.
- ⁵ Euskal nobelaren gaia, euskal literaturarena bezala bestalde, euskararen bizitza eta abentura litzateke, euskal herriarena baino areago.
- ⁶ Lucien Goldmann dugu giza-maila burgesa eta nobelaren artean “homologiazko” harremanak gehienik agerian ipini dituenak, Lukács eta R. Girard’engandik abiatutik. Goldmanni dagokionez, ikus daiteke haren *Pour une sociologie du roman*, Paris, Gallimard, 1964. Era berean, G. Lukács, *La théorie du roman*, Paris, Gonthier, 1963, eta R. Girard, *Mensonge romantique et vérité romanesque*, Paris, Grasset, 1961.
- Hala eta guztiz, gehiegizko omen da literatur-mota bat giza-maila batetara jo eginaz mugatzen eta nortzen saiatzea: “No creo que la novela ni ninguna otra forma o género literario pueda ser definida y/o explicada suficientemente por su adscripción a una clase social” (D. Yndurain, “Hacia la novela como género literario”, *Teoría de la novela*, Madrid, Sociedad General Española de Librería, 1976, orr. 146).
- ⁷ Hegel’ek aipatua zuen nobelaren berankortasun hori bere Estetikan. Eta hori bera aurki dezakegu Lukács’en nobela-teorian: hauentzat, nobela mundu modernoaren epepea litzateke nonbait.

- ⁸ Gogoan izan dezagun gaurko Poetikak genero literarioa, baliogarri delarik ere, ez duela hartzen normatiboki, Retorika klasikoak ez bezala, historiko eta deskriptiboki baizik. Funtsean, nobelaren konbentzioen arabera irakur daitekeen edozein testu izango dugu nobela.
- ⁹ Ik. O. Tacca, *La historia literaria*, Madrid, Gredos, 1968.
Rusiako formalistek azpimarratu dute literatura sistema dela eta beraz literaturaren historia edo eboluzioa sistemen jarraipena eta aldakuntza izango da. Ik. Tinianov, “Sobre la evolución literaria”, *Teoría de la literatura de los formalistas rusos*, Buenos Aires, Ediciones Signos, 1970, orr. 89-101.
- ¹⁰ Ik. Carlos García Gual, *Los Orígenes de la Novela*, Madrid, Istmo, 1972, eta *Primeras novelas europeas*, Madrid, Istmo, 1974.
- ¹¹ Zifra horiek lana idaztearen garaiari dagozkio. Urtebete geroago, beste hamar bat nobela agertu da. Honek ez ditu gure ondorioak desbaliotzen, noski, indartzen baizik, alegia, euskal nobelaren berankortasuna gero eta argiago erakusten zaigu.
- ¹² Otegi'ren *Pertsonaia euskal nobelagintzan* liburuaren bukaeran agertzen den “Euskaraz idatzi eta publikaturiko eleberrien zerrenda” izan dugu abiapuntua.
Berez, hemen aipatzen direnetako batzu, nobela baino, nobela labur litzateke. Egungo teoria narratiboaren arloan oso eztabaida Iarria gertatzen da nobela eta nobela laburraren arteko bereizgarri formalak mugatzerakoan. (Ik. J. M. Lasagabaster, *La novela de Ignacio Aldecoa. De la mimesis al símbolo*, Madrid, Sociedad General Española de Librería, 1978, orr. 56 eta hurr.).
- ¹³ I. Sarasola, *Historia social de la Literatura Vasca*, Madrid, Akal Editor, 1976, orr. 183.
- ¹⁴ Ik. L. Michelena, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid, Minotauro, 1960, orr. 183.
- ¹⁵ Adibide bezala eta Espainiako nobelari dagokionez, ikus daiteke J. I. Ferras, *Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)*, Madrid, Taurus, 1973.
- ¹⁶ L. Michelena, op. cit., orr. 141.
- ¹⁷ Badakigu, jakina, literatura zer den arazo konplexu hori idekita dagoela egungo Literatur-Teorian. Halaz guztiz, usuario eta praktikari dagokionez, baliogarri dugu literatur-mota nagusietan oinarrituta dagoen literaturaren nortasuna.
- ¹⁸ “Porque una de las características más señaladas de la literatura vasca es el predominio desmesurado de las obras de carácter religioso sobre las profanas, fuera de la literatura oral”, dio K. Mitxelena. Eta “Otra de las características de esta literatura es la frecuente confusión entre el interés artístico y el interés científico” (op. cit. orr. 18).

¹⁹ Gogora dezagun, adibidez, Etxeita'k diona, *Jaioterri maitia* (1909) bere bigarren nobelaren hitzaurrean: “Artian, aldabena aldabena euskera garbizen argitaratzen badoguz irakurgeta ta ipuin onak, beteko dogu euskera maitia garbitzeko ta zabaltzeko daukagun egipidea; gañera, alkarregaz euskeraz berba eginaz”.

Azkue'k, berriz, *Ardi galdua* (1918) nobela laburrari “gertirudia” izena ematen dio. Eta, nobelaren bukaeran ipinitako hiztegi ttipi batean, irakur dezakegu; “GERTIRUDI, novela; liter. “imagen de lo sucedido, suceso simulado”. Orain ogei bat urtetik idasle batzuk erabili degun itz berri irakurgai ezta egokia, “leyenda, objeto de lectura” baita, (orr. 152-153).

²⁰ Guztiz argi azaltzen zaigu literaturaren, eta haren barrena, nobelaren zeregin berri hori Irazustaren *Joanixio* (1946) nobelaren “Sarreran”: “Gizagaian geiena irakurtzen dana, izkuntza ezagunenetan, esango nuke edestizun edo “nobela” dala. Euzkotarren artean ez da ala gertatzen, euskeraz idatzitako edetzizunak oso gutxi ditugulako (...) Eun urtetik ununtz irakurle mordoak sortu dira. Orain nunai idatzi leike asko ta merke, salduko dan ustean. Eta alaxe gertatzen da. Bañan gu eun urte oietan besteren mendean izan gera, gure izkuntza gutxik irakurtzen zuela; ikastoletan erdera besterik ez; eta, nolatan edestizunak idatzi?; norentzat?; nork irakurri lezazkikean?

Uts ortan gaude. Uts ortatik ateratzeko norbaitek asiera eman bear, bestela beti utsean egongo ginake. Ta alaxe asi nai nuke ...”

²¹ Adibide bakar bat baizik ez aipatzekotan, Marthe Robert'ena aipatuko dugu. Bere *Novela de los orígenes y orígenes de la novela* (Madrid, Taurus, 1973) liburuaren lehenbiziko zatia honako izenburu hau ipintzen dio egileak: “El género indefinido”.

²² Op. cit. orr. 108.

²³ J. A. de Moguel, *Peru Abarca*, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1975, orr. 13. Azkuek erabiltzen dituen “irakurgeta” eta “irakurgetxu” hitzak, “novela” eta “novelita” itzuli ditu J. C. Cortazar'ek.

*Peru Abarca*ren bigarren argitaldia, 1882.an, aipatzen, honela dio A. Zelaietak: “Gure ustez, *Peru Abarca*ren argitaratze hauziaren arrazoi edo argibide indartsu bat nobelaren beraren muinean, gaien, dagoke. Bi alderdi ikusten ditugu guk *elaberi* honetan, edozein zentsuratailerentzat ere dudagarri bortitzak lirakeenak” (*Peru Abarca*ren *berrirakurtzea*, Donostia, Kriselu, 1979, orr. 17. Azpiko arrastoa gurea da).

²⁴ Ik. J. M. Lojendio, “Mogel”, *Egan*, 2-4-orr. 16-24, San Sebastián, 1954. Eta Mitxelenak: “Como ha señalado J. M. Lojendio, Peru es la versión vasca, pero muy vasca y muy concreta, del “Buen Salvaje” legado por los misioneros a los enciclopedistas” (op. cit. orr. 109).

Guztiz aurkako dugu L. Haranburu Altunaren iritzia: “Kaso honetan jakintza hori XVIII.go euskal burguesia-oligarkiaren ideologia klerikaltxobinista da” (*Euskal literatura* 72, Donostia, Lur Editoriala, orr. 10).

Oso ezaguna da hemendik atera zen Mitxelena eta Haranburu Altunaren arteko eztabaida garratza, Aresti ere bein beintzat han sarturik, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkarien orrialdeetatik. Dena dela, *Peru Abarca*, eztabaidaren alde guztiak A. Zelaietak azalduta dugu, op.cit. 115-118.

- ²⁵ Pertsonaiak ez dira, funtsean, ekintza-sujetoak, elkarrizketa-sujetoak baizik. Horretaz, narrazio, “enuntziapenaren” mailan aurkitu behar dugu haien funtzioa, historia, “enuntziatuarenean” baino.
- ²⁶ Hori bera marratzen du Villasante’k: “La idea de escribirle (sic) (se refiere a *Peru Abarca*) le vino a Don Juan Antonio de los diálogos latinos de Luis Vives. Así como este gran humanista compuso sus diálogos para enseñar el latín de una manera amena y práctica, Moguel quiso hacer otro tanto con sus diálogos” (*Historia de la Literatura Vasca*, Aránzazu, 1979,2.^a, orr. 213).
- ²⁷ Ez dugu esan nahi, jakina, hori hainbeste denborako gordetze honen arrazoin bakarra denik. Ik. A. Zelaieta, op. cit. orr. 17 eta hurr.
- ²⁸ Literatur-soziologiaren korronte nagusienetako bat sortarazi du eta finkatu gizartearen barrera literaturaren ibilbide honen azterketak. Adibidez, R. Escarpit’ena eta haren ardurapean, Burdeos’ko Unibertsitatean, hain zuzen, “Institut de Littérature et de Techniques Artistiques de Masse” (ILTAM) delakoan egiten ari diren ikerketak.
- ²⁹ Mekanizista batzuk izan ezik, marxistek, ez gaurkoek bakarrik, aurrekoek ere bai, onartzen dute artearen autonomia erlatibo hori, artea gainegituraren mailan ezartzen badute ere. Terry Eagleton’en hitzotan labur dezakegu marxismoaren horri buruzko pentsaera: “Sería un error suponer que la crítica marxista se mueve mecánicamente del “texto” a la “ideología” y sucesivamente a las “relaciones sociales” y a “las fuerzas productoras”. Más bien le interesa la *unidad* de estos “niveles” de la sociedad. La literatura puede ser parte de la superestructura, pero no es sólo el reflejo pasivo de la base económica”, *Literatura y crítica marxista*, Madrid, *Zero/Zyx*, 1978, orr. 28-29.
- ³⁰ Gogora lehen aipatutako –ik. nota 3– Txillardegí eta Saizarbitoriaren eragina euskal nobelaren eraberritzean.
- ³¹ Ik. L. Villasante, op. cit. orr. 168-169.
- Otegi’k sartu du textu hau euskal nobelen zerrendan. Mitxelenak, textua aipatuz gero, honako hau eranstean du: “Pero este relato novelado, de larga y curiosa historia en sí mismo (...) apareció primero en francés” (op. cit. orr. 156).
- ³² Hurrengo urtean, hots, 1881.ean, irtengo zen, lehen aldiz liburu bezala, Durango’n.

- ³³ Ik. Ph. Veyrin, *Les Basques*, orr. 213. (Villasantek aipatua).
- ³⁴ *Le Golfe de Gascogne. Pays Basque-Pyrénées, Pau, Bayonne. Panorama à vol d'oiseau*, Pau, Edit. Menetière, 1880.
- ³⁵ R.M.^a Azkue, *Ardi galdua. Arteka-marteka egindako gertirudia*, Bilbon, Jesu-sen Biotzaren Elaztegian, 1918.
- ³⁶ Hori bera marratzen dute behin eta berriro euskal literaturaren historigileek: “Se sigue considerando a Domingo Aguirre (1865-1920) como el mejor de los novelistas en lengua vasca. No debe este título a su primer ensayo en el género todavía en boga en el país de la novela histórica (*Auñemendiko lorea*, 1898), ni siquiera a *Kresala* (1906), excelente cuadro costumbrista de un puertecito vizcaíno, su Ondarroa natal, sino a *Garoa* (“El helecho”, 1912), la novela del caserío vasco”, (Michelena, op. cit. orr. 156). “Todos están de acuerdo en considerar a *Kresala* y *Garoa* como las obras maestras de Domingo Aguirre”, (Villasante, op. cit. orr. 327).
- ³⁷ Analojia hori P. Lhande'k azpimarratu du lehenengoz: “Egia ori etzuan Agirre'k aztapen-aztapenetik, ondo asmatu. Iduritu zitzaion, lenago Villoslada'k bere *Amaya* omen aundikoa erderaz idatzi zuan bezela, berak ere euskeraz orelako arlo zar bat bururatu zezakeala, ta, Eriktruda donearen bizitza autaturik, argitaratu zuan bere *Auñemendiko lorea*. Gutun ori aita-tugaria dala ta *Euskalzale* agerkariak, 1897'ko urtean, sariztatu zuala bada-ki. Baña Agirre'ren lendabiziko irakurgai ori jakintsu ta euskaltzale batzuen artean gelditu zan. An zebilzkigun arotz zaren egiteak, Txilperiko, Txilde-berro, Teodoriko ta beste perretxiko orienak, gure baserritaren egitekoakiñ antzarik etzeukaten. Euskaldun geyenak *Auñemendiko lorea* bildu gabe gel-ditu ziran”, “Domingo Agirre jaunaren omenez egindako itzaldia”, *Itzaldia-k*, 1923 (B. Estomes Lasa'k aipatuta, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Literatura*, II, San Sebastián, Auñamendi, 1970, orr. 251-252).
- Espainako literaturan, 1830 eta 1870 artean ipini ohi da nobela histori-koaren aldia. *Amaya* beranduxeago (1879) sortu zen, “cuando el romanticismo era un recuerdo”, dio J. I. Ferreras'ek, *El tiempo del liberalismo y de la novela histórica (1830-1870)*, Madrid, Taurus, 1976, orr. 150.
- Nobela historikoaren interpretaketa sozialari dagokionez, ikus daiteke G. Lukacs'en saio famatua, *La novela histórica*, México, Ediciones Era, 1966.
- ³⁸ D. Agirre, *Auñemendiko lorea*, San Sebastián, Auñamendi, 1966, 2.^a, II, orr. 184.
- ³⁹ Euskal ohiturazko nobelari dagokionez, baliogarri dugu, nere ustez, erdal nobelari buruzko esana. Aspaldanik, nobelaren historigileek kostumbris-moan jarri ohi zuten nobela errealistaren iturburua. Interpretaketa honen aurka, J. Montesinos'en iritiz, kostumbrismoaren eragina “letal” izan da nobelaren desarrolluarentzat. (Ik. *Costumbrismo y novela*, Madrid, Castalia, 1972, 3.^a). Honen antzekoa dugu gaur Ferreras'en iritzia: “Llamo costum-

brismo a la caracterización de relaciones sin historia, a la materialización de relaciones en su inmovilidad; llamo costumbristas a las obras preferentemente descriptivas, sin problemática (...) Son obras costumbristas aquellas en las que el protagonista no sufre ninguna transformación a lo largo de la supuesta “historia” narrada; de aquí que el héroe se convierta en tipo, de aquí que el universo se transforme en “cuadro”. “Y en este sentido, una de las formas, quizás la más literaria, de negar y combatir la novela, se llama costumbrismo”, (*Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)*, Madrid, Taurus, 1973, orr. 133, 135).

- ⁴⁰ Ik. *La novela idilio*, México, 1961. Askotan aipatu izan ohi da Agirre eta Pereda'ren nobelen arteko lotura: “*Kresala y Garoa* recuerdan irreflexiblemente a dos célebres novelas de Pereda: *Peñas arriba* y *Sotileza*”, dio Villasantek (op. cit. orr. 329). Mitxelena, berriz, matizatu egiten du antzekotze hori, esatean: “Aguirre es (...) un magnífico pintor de costumbres y caracteres, más próximo al vizcaíno Oscar Rochelt (*El alcalde de Tangora*, 1910) que a Pereda...” (op. cit. orr. 156).
- ⁴¹ I. Sarasolak, Agirre'ren ideolojia gogor kritikatzeko badu ere, argi eta garbi marratzen du haren prosa narratiboaren erabateko garrantzia: “Prosalarik bain, euskal prosa modernoaren oinarri”, (*Euskal literaturaren historia*, Donostia, Lur, 1971, orr. 122). Eta are argiago erdarazko testuan: “Su obra, por su sentido del idioma coloquial y narrativo, marca un hito decisivo en el establecimiento de la prosa novelística moderna”, (*Historia social de la literatura vasca*, orr. 146).
- ⁴² Loidi'ren ikasbideak eragin handia izan omen du euskal nobelaren desarrolluan: Izeta'k, Peillen'ek, egunotan, Gereño'k eta G. Garate'k jarraitzen dute polizi-nobelaren bidea.
- ⁴³ Dena dela, Etxaide'ren nobelagintzak argiro erakusten digu ohiturazko nobela, Agirre'renaren arabera bederen, ez dela jadanik egingarri.
- ⁴⁴ Nobelari “zaharrak” –Etxaide, Erkiaga, Anabitarte...– ez zaizkio nobela “modernoari” eratzikiko. Loidi'ri dagokionez, ez dio orduzkeroztik nobelari ekin.
- ⁴⁵ Aurreko literaturaren aldean, alegia, Jainkoa gauza guztien neurritzat edukitzen zuen eta “monolitismo” ideolojikoan finkaturik zegoen literaturaren aldean.
- ⁴⁶ Honela erakusten digu L. Goldmann'ek, Lukács'en “Nobelaren teoria”tik abiatuz, nobela modernoak sortarazten duen problematikotasun hori: “Le roman est l'histoire d'une recherche *dégradée* (que Luckács appelle “démoniaque”), recherche de valeurs authentiques dans un monde dégradé ...” (*Pour une sociologie du roman*, Paris, Gallimard, 1964, orr. 23).

- ⁴⁷ Ik. K. Otegi, “Pertsonaia indibiduala existentzial gatazkan” (J. L. Alvarez Enparantza: Leturiaren egunkari ezkutua)”, *Pertsonaia euskal nobelagintzan*, Bilbao, Gero, 1976, orr. 119 eta hurr.
- ⁴⁸ Hala eta guztiz, azpimarratu behar dugu lehenbiziko pertsona narratiboaren erabiltze honen garrantzia, euskal nobelaren desarroiluari dagokionez. Txillardegia, Europako nobelari existentzialisten antzera, adibidez, Sartre, Camus, nobela oroiki-idazti edo aitormen gisa planteatuz, lehen pertsonaz baliatzen da logikoki.
Ik. I. Sarasola, *Txillardegia eta Saizarbitoriaren Nobelagintza*, Donostia, Kriselu, 1975.
- ⁴⁹ *Egunero hasten delako* nobelaren bigarren edizioaren hitzurrerako neronek idatzi dudak bezala: “Antzinako segurantzarik gehienak galdu edo problematiko bihurtu diren gaurko munduan, hizkera ez da aurrerantzean zentzuz betetako eta harmonikoki eratutako unibertso bat deskribatzeko eta aztertzekeo tresna inozo eta eragilea. Ez. Hizkeran bertan gertatzen dira eta bizi munduaren eta gizonaren desegurantzak eta bilaketak. Hizkera, kontatzea bera gertatu zaigu problematiko, eta idazlea dugu problematikotasun horren lekukorik argitsuen eta larriena. Nobela idazkera baten nahitaezko gertaria, abentura izango da honela, historia baten kontaketa aparte. Horixe dugu erabat berria, euskal nobelagintzari dagokionez, *Egunero hasten delako* testuan ...”
- ⁵⁰ Geroago agertu da Txillardegiren *Haizeaz bestaldetik* nobela sakon, aberats eta zaila, ere bai. Nobela diogu, nobela-gisa irakur daitekeen testua baitugu.
- ⁵¹ Hemen ere, eta “a posteriori” gure iritzia piska hat zuzendu beharko genuke. Txillardegiren azken nobelak, Saizarbitoriarenak, hirugarrenak izan ezik, ez dituzten sakontasun eta nobela-unibertsoaren aberatasun eta zabaltasuna ekartzen dizkigu nolazpait.

KRONOLOGIA

Antiguan jaio zen, 1931ko azaroaren 6an.
Donostiako apaiztegira, 12 urterekin.
Saturrarango apaiztegia, 13, 14, 15 urterekin.
Gasteizko apaiztegira, 16 urterekin.
Teologiako lehenengo urtea, Salamancan, 17 urterekin.
Teologiako bigarren urtea, Donostian, 18 urterekin.
Teologiako hirugarren urtea, Salamancan, 19 urterekin.
Filosofia eta Letrak, Salamancan, 20 urterekin.
Filologia Erromanikoa, Madrilen, 21 urterekin. San Juan Evan-
gelista ikastetxe nagusian kaperau, 24 urte bete arte.
JECen sartu, 25 urterekin.
Parisen, 1967-1968 ikasturtean.
1969an, Donostiako apaiztegia eta EUTGn irakasle, 70 urte
bete arte.
Tesiaren aurkezpena, 1972an.
Sekulartzea, 1981ean.
Lourdes Lecuonarekin ezkontza, 1983an.
EUTGko katedradun, 2003a
2003az gero, Deustuko Unibertsitateko Irakasle Emerittoa.

BIBLIOGRAFIA

- 1978, *La novela de Ignacio Aldecoa. De la mimesis al símbolo*, Madrid, S. G. E. L.
- “La isla, el lugar de la escritura. (A propósito de *Parte de una historia*, de Ignacio Aldecoa)”, *Letras de Deusto*, vol. 8, n.º 15, 139-163.
- 1979, “La crítica semiológica en España”, *Mundaiz*, 13, 7-24.
- “Bigarren edizioaren hitzaurrea”, SAIZARBITORIA, Ramón: *Egunero hasten dela-ko*, Donostia, Ustela Saila, 5-19.
- 1981, “Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak”, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 343-368.
- “La adaptación de los textos dramáticos a la luz de la ‘Estética de Recepción’. Aplicación a *La hija del Aire*, de Calderón”, *Calderón. Actas del Congreso Internacional sobre Calderón y el teatro español del Siglo de Oro*, Madrid, Anejos de la revista “Segismundo” 6, 1603-1620.
- “El euskara en el II Centenario de Calderón de la Barca. *Zalameako Alkatia*”, *Letras de Deusto. Número extraordinario con ocasión del III Centenario de Calderón (1681-1981)*, 22, 125-144.
- 1982, “Literatura vasca y bilingüismo: vasco y castellano en la novela *Ehun metro*, de R. Saizarbitoria”, BELLINI, Giuseppe (Ed.): *Actas del séptimo Congreso de la Asociación Internacional de Hispanistas*, Roma, Bulzoni, 667-675.

- “Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna”, *Jakin*, 22, 137-154.
- “Nobelaren joera berriak”, *Jakin*, 25, 6-36.
- 1983, “La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica”, *Mundaiz*, 26, 34-52.
- 1984, “La literatura vasca entre 1700 y 1876”, *Noveno Congreso de Estudios Vascos. Antecedentes próximos de la Sociedad Vasca Actual. Siglos XVIII y XIX*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 251-277.
- “La metáfora del espacio en *Gran Sol*”, LYTRA, Drosoula (Ed.): *Aproximación crítica a Ignacio Aldecoa*, Madrid, Espasa Calpe, 142-155.
- “A propósito de ‘Oficio de tinieblas’. Un ambicioso y ambiguo experimento de teatro total”, *Antzerti berezia*, 7, 26-27.
- 1985, “Peñaflorida eta Euskal Teatroa”, *Antzerti berezia*, 10, 2-4.
- “Gaurko euskal teatroaren gorabeherak”, *Jakin*, 37, 45-60.
- “Literatura y vida literaria”, *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmu*, San Sebastián, Caja Laboral Popular, 427-433.
- 1986, “Peñaflorida en la Vida Literaria Vasca del Siglo XVIII”, URRUTIKOETXEA, JOSETXO (Ed.): *Peñaflorida y la Ilustración*, San Sebastián, Universidad de Deusto, 43-86.
- “Introducción a la narrativa vasca actual”, LASAGABASTER, Jesús María (Ed.): *Antología de la narrativa vasca actual*, Barcelona, Edicions del Mall, 11-43.
- (Ed.) *Antología de la narrativa vasca actual*, Barcelona, Edicions del Mall. (Traducción al inglés: *Contemporary Basque Fiction. An Anthology*, University of Nevada Press, 1990).
- “Blas de Otero y la Otra Literatura Vasca”, ASCUNCE, José Angel (Ed.): *Al amor de Blas de Otero. Actas de las II Jornadas Internacionales de Literatura: Blas de Otero*, San Sebastián, Universidad de Deusto, 149-157.
- “El verso castellano modelo del verso vasco, en *L’art poétique basque* (1665), de Arnaud D’Oihenart”, *Actas del VIII Congre-*

- so de la Asociación Internacional de Hispanistas, Madrid, Istmo, 113-122.
- “Estatuto semántico de la pragmática literaria”, *Investigaciones semióticas I. Actas del I Simposio Internacional de la Asociación Española de Semiótica*, Sevilla, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, 307-317.
- 1987, “La literatura vasca”, *Letras Españolas 1976-1986*, Madrid, Castalia y Ministerio de Cultura, 283-303.
- “La Palabra como Práctica Escénica. De ‘Tulio Montalbán y Julio Macedo’ a ‘Sombras de Sueño’”, LASAGABASTER, Jesús María (Ed.): *El teatro de Miguel de Unamuno*, San Sebastián, Universidad de Deusto, 129-152.
- (Ed.) *El teatro de Miguel de Unamuno*, San Sebastián, Universidad de Deusto.
- “Joxe Austin Arrieta eta ‘Manu militari’ testuaz bestaldetik, literatura”, *Literatur Gazeta*, 5, 3.
- 1988, “La novela vasca al borde de la realidad”, *II. Euskal Mundu-Biltzarra. Literatura eta bere intertestualitatea*, II, Vitoria-Gasteiz, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 157-181. También en *Congreso de Literatura. (Hacia la literatura vasca)*, Madrid, Castalia, 1989, 319-346.
- “Novela regionalista española y costumbrismo vasco”, LISSORGUES, Yvan (Ed.): *Realismo y Naturalismo en España en la segunda mitad del siglo XIX*, Barcelona, Anthropos, 158-168.
- “La recepción del mito: ¿desmitificación o transmitificación?”, Ruíz RAMON, FRANCISCO; OLIVA, César (Ed.): *El mito en el teatro clásico español. Ponencias y debates de las VII Jornadas de teatro clásico español*, Madrid, Taurus, 223-234.
- 1989, “Las novelas de la Tierra Vasca: Lectura con moraleja”, LASAGABASTER, Jesús María (Ed.): *Pío Baroja. Actas de las III Jornadas Internacionales de Literatura*, San Sebastián, Universidad de Deusto, 211-235.

- (Ed.) *Pío Baroja. Actas de las III Jornadas Internacionales de Literatura*, San Sebastián, Universidad de Deusto.
- “La prosa narrativa de Gabriel Celaya”, *Homenaje a Ignacio Elizalde. Estudios literarios*, Bilbao, Universidad de Deusto, 165-178.
- “Hitz bi”, TOLEDO LEZETA, Ana M^a: *Domingo Agirre: euskal eleberraren sorrera*, Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, XV-XVI. 1990, “De Arranondo a Obaba, pasando por Madrid. (Diagnóstico de urgencia de la actual narrativa euskérica)”, *Hegats*, 2, 85-92.
- “El teatro de Celaya, una obra expansiva”, *Muga*, 73, 32-35.
- “Euskal Literaturaren azterketa 1960-1990”, *Jakin*, 61, 43-63. 1991, “La novela de Ignacio Aldecoa: de lo social a lo existencial”, MARTINEZ, Florencio (Ed.): *Ignacio Aldecoa, veinte años después*, Bilbao, Universidad del País Vasco y Diputación Foral de Alava, 49-76.
- “La novela de la utopía imposible: *Paradox, Rey*”, *Eguzkilore*, 4 Extraordinario, 43-52.
- “La escritura como lugar de transgresión. (A propósito de *Ene Jesus*, de R. Saizarbitoria”, LAKARRA, Joseba A.; Ruiz ARZALLUZ, Iñigo (Ed.): *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars altera*, San Sebastián, Anejos del ASJU XIV, Diputación Foral de Gipuzkoa, 1231-1240.
- (Ed.), BAROJA, Pío: *Paradox, Rey*, Madrid, Espasa Calpe. (Incluye Bibliografía Selecta).
- “Introducción”, LASAGABASTER, Jesús María (Ed.): *Pío Baroja. Paradox, Rey*, Madrid, Espasa Calpe, 9-54.
- “La comunicación teatral a la luz de la Estética de la Recepción”, *Pausa*, 7, 20-27. 1994, “Paseo literario de la ciudad. Baroja-Anabitarte-Celaya”, AYERBE, Enrique (Ed.): *Hiriburuak. Donostia-San Sebastián, Oiartzun, Sendoa*, 148-152.

- “Contar, contarse y ser conta(n)do. (A propósito de *Parte de una historia* de I. Aldecoa)”, CHAMPEAU, Geneviève (Ed.): *Référence et autoréférence dans le román espagnol contemporain. Actes du Colloque international de Talence*, Bordeaux, Maison des Pays Ibériques, 65-74.
- “Gabriel Celaya: *Lázaro anda*. ‘¿Un título nuevo para un texto viejo?’”, ASCUNCE, José Angel (Ed.): *Gabriel Celaya: contexto, ética y estética. Actas de las V Jornadas Internacionales de Literatura*, San Sebastián, Universidad de Deusto, 187-199.
- 1995, “Pío Baroja y el mar/Pío Baroja eta itsaso”, *Los Baroja y el mar. Homenaje a Julio Caro Baroja*, San Sebastián, Museo Naval (Diputación Foral de Gipuzkoa), 105-123.
- “El mar en la obra literaria de Ricardo Baroja/Itsaso Ricardo Baroja-ren egintza literarioan”, *Los Baroja y el mar. Homenaje a Julio Caro Baroja*, San Sebastián, Museo Naval (Diputación Foral de Gipuzkoa), 205-221.
- “Ignacio Aldecoa: La última ‘parte de una historia’”, *Mundaiz*, 50, 69-84.
- “Cuestión de palabras: A propósito de la teoría poética de Gabriel Celaya”, MARAÑA, Félix (Ed.): *Encuentro con Gabriel Celaya. Noción y memoria de poeta (1911-1991)*, San Sebastián, Universidad del País Vasco, 77-93.
- “La prosa narrativa de Gabriel Celaya”, MARAÑA, Félix (Ed.): *Encuentro con Gabriel Celaya. Noción y memoria de poeta (1911-1991)*, San Sebastián, Universidad del País Vasco, 145-159.
- “Ignacio Aldecoa: práctica y teoría del cuento”, *Cuadernos Hispanoamericanos*, 546, 142-147.
- “The Promotion of Cultural Production in Basque”, GRAHAM, Helen and LABANYI, Jo (Ed.): *Spanish Cultural Studies. An Introduction*, New York, Oxford University Press, 351-355.
- 1996, “El tiempo de la novela cuando *Tiempo de silencio*”, *Mundaiz*, 52, 21-33.

- “Pío Baroja, Mari Belcha y yo”, MARAÑA, Félix (Ed.): *Reelección de Pío Baroja (1872-1956)*, San Sebastián, Bermingham, 37-44.
- “El Conde de Peñafloreda, ¿un soñador para un pueblo?”, AULESTIA, Gorka (Ed.): *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, Vitoria-Gasteiz, Fundación Sancho el Sabio, 235-259.
- 1997, “El otro casticismo. De ‘Paz en la guerra’ a ‘Guerra en la paz’”, DE LA FUENTE, Ricardo; SALAÜN, Serge: *En torno al casticismo de Unamuno y la literatura en 1895*, Anejos Siglo diecinueve, Valladolid, Universitas Castellae, 79-88.
- “‘El amo de la jaula’. El pensamiento religioso de Pío Baroja”, *Ilu*, 2, 75-97. Revista de ciencias de las religiones, Universidad Complutense.
- 1998, “La religión y lo religioso en Pío Baroja”, LASAGABASTER, Jesús María (Ed.): *Los Baroja. Memoria y lección*, San Sebastián, Kutxa Fundazioa, 211-223.
- (Ed.): *Los Baroja. Memoria y lección*, San Sebastián, Kutxa Fundazioa.
- “Pío Baroja y la novela histórica. Estrategias narrativas en las *Memorias de un hombre de acción*, *Mundaiz*, 56, 9-24.
- “Escritores vascos del 98”, *Euskonews & Media*, 9 (1998/11/6-13).
<http://suse00.su.chu.es/euskonews/0009zbk/frgaia.htm>.
- “Baroja: El carnaval de la escritura. (A propósito de *La leyenda de Jaun de Alzate*), *Insula*, 617, 27-29.
- 1999, “Barajaren *La leyenda de Jaun de Alzate* nobelaren irakurketa ‘heterodoxo’ bat”, *Enseiukarreen*, 14, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 83-90.
- “Texto, paratexto y espectador implícito en *¿Dónde estás, Ullume, dónde estás?*, ASCUNCE, José Angel (Ed.): *Once ensayos en busca de un autor: Alfonso Sastre*, Hondarribia, Hiru, 341-356.

2000, “La novela vasca en la década de los 60”, *Euskonews & Media*, 76 (2000/4-28/5-5).

<http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0076zbnk/frgaia.htm>.

— “La literatura vasca. De antologías, ideologías y otras discriminaciones”, CHAMPEAU, Geneviève; LY, Nadine (Ed.): *Le phénomène anthologique dans le monde ibérique contemporain*, Bordeaux, Maison des Pays Ibériques, 133-143. (Y anexo III: “Lista de antologías de la literatura vasca. Prosa y poesía”, 357-359).

En prensa:

“Relectura de ‘Lectura insólita de *El Capital*’ veinticinco años después”.

“Literatur teoria eta kritikaren irakaskuntza unibertsitatean”.

“Erbesteko literatura eta euskal literaturaren historia”.

“El teatro de Gabriel Celaya”.

“A. Oihenart. *L’Art Poétique Basque*: Razón y sinrazón de una renovación poética”

“Para una relectura de *Las Brujas de Sorgin*”.

“Presencia de escritores vascos en la narrativa española contemporánea”.

AURKIBIDEA

<i>AURKEZPENA</i>	5
<i>HITZAURREA</i>	7
<i>LEHEN ZATIA</i>	13
<i>BIGARREN ZATIA</i>	47
<i>ARTIKULUA</i>	65
<i>KRONOLOGIA</i>	99
<i>BIBLIOGRAFIA</i>	101

SOLAS LITERARIOAK bilduma

1. Miel A. Elustondo. *Zozoen elean.*
2. Ibai Iztueta. *Jesus Mari Lasagabasterrekin hizketan.*